



uk

253. zenbakia / 2014ko ekainaren 10a

OLGETAN SOLAS

ERANDIOKO JAİETAN 2014

Familia giroan ondo pasatzeko kirol-jolasak

FAOETA (ekainak 7)
ERANDIOGOIKOA (ekainak 20)
KUKULARRA (ekainak 29)*
ARRIAGA (uztailak 6)
GOIERRI (uztailak 13)
ASUA (uztailak 19)
ASTRABUDUA (abuztuak 9)
SANTIMAMI (abuztuak 18)
ALTZAGA (abuztuak 28)
ENEKURI (irailak 13)
LUTXANA (irailak 20)

* AMA-LURrekin

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.erandiokoeuskarazerbitzua.com
euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128

E!
Erandio Elizateko Udala

kulki
kultura *erandio*

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saria
Departamento de Cultura

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIDEA: Martikoa 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337

ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga

ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate,
 Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorge Perez, Bittor Egurola, Armando Llamas, K. Oñate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte

MARRAZKILARIA: Laurita Siles**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Erika Martinez (944 911 337)**FILMAZIOA:** Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00**ISSN:** 1576-6799

© Boluntzarreta

TOKIKOM

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. PLAZA. Armando Llamas
5. IRUDIA. *Independence of the seas* gurutzatontzia.
6. FACEGUK. Jailetako arduradun bazina, zer egingo zenue?
7. LEHEN ETA ORAIN. San Bartolome parroikia (Leioa).
8. URIBITAKORA. Jone Uria Albizuri.
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari eta eskualdetik.
10. ELKARRIZKETA. Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak.
11. ERRETRATUA. Imanol Uria Albizuri.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Eraikuntza-lanak eskualdean.
28. ARGAZKIA. Plentziarrak azokan, XX. mende hasiera.
30. BERBETAN. Juan Gorostidi.
34. FOTOGRAFIA. Asier Reino.
40. SAKONEAN. Ametsak egi bihurtuz ikerlana.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskal zinemaren gaineko biltzara Donostian.
43. MUSIKA. XIII. Azkena Rock Gasteizen.
44. LIBURUAK. Idazle Eskolan izen-emotea zabalik.
45. KIROLAK. Herri-triatloia eta Kosta Trail lasterketa.
46. JENTILKOKA. Gaurargi edo Argilunen olerkiak.
47. EUSKARA eta ERAKUNDEAK. Euskara sustatzea eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Oilasko hanburgesa..
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Romoko futbol-txapelketako irabazleak, 1955.
54. AITORMENAK. Xabier Arakama.


Azala: Asier Reino

www.ukaldizkaria.biz


30 Juan Gorostidi

Berbetan

Gernika Lemoizen dantza eta musika ikusizunaz eta Lemoizeko zentraler- an grabatutako bideoaz jardun du.



11 Imanol Uria



54 Xabier Arakama

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Armando Llamosas

> arkeologoa / uribekosta.wordpress.com-ko blogaria

Gaztetxeen beharra, gazteak horrelakoak izan arren!

Azken asteotan, kasualitatea ote, ‘gazte-txe’ hitza sarritan heldu zait. Ekaineko Berbatxango bat, Txorimalo gaztetxearen urteurrena, kaleko kartelak... Gaztetxeek gurekin urte asko eman dituzte; oraindik, aldiz, ez dut ezagutzen horri buruzko hausnarketa seriorik. Aztertzen badugu zenbat gaztetxe dauden Euskal Herrian, zenbat ekimen programatzen dituzten, zenbat gazte-tek parte hartzen duen antolaketan eta ekimenetan, zenbaki potoloak agertuko zaizkigu; gizarteak, ordea, itsuarena egiten du, ez da batere irekia.

Hau idazten duena edadekoa da; beraz, gazteteetatik zein gazteengandik, tamalez, urrun. Horregatik, testua tontakeriaz betetzeko arriskua izan arren, ohiko *sistema barruko heldu-burgesaren* ideia batzuk idazten ausartuko naiz.

Gehienetan, gaztetxeak nahasten ditugu ezker abertzalearekin, besterik gabe. *Estigma* hori sinplismo interesatua izan da askotan (beti izan ez bada), azken finean, politika egiten dute barruan zein kanpoan daudenek, edozein gizarte- edo kultura-ekintza politika-ekintza baita. Ezker abertzaleak sistemaren kontrako jende asko kapitalizatu duela ez da berria; baizik eta normala, ulergarria eta, gainera, ez kritikagarria. Politizazioaren estigma horrek, ordea, pisu oso handia izan du aipatutako gizartearen iragazkortasunean. Udal askok, adibidez, horretaz baliatuta, etsaitzat hartu dituzte, eta dena ukatzen diete, haien planteamendu deserosoak entzun ere egin gabe. Egun, ezker abertzalearen *desestigmatizazioaren* (?) bidean omen gaudenez, gazteteetako lana azaltzen omen zaigu.

Gaztetxeak behar ditugu. Hala diot. Edozein izen izan lezake, baina gazte-esparru autogestionatua behar dute gizarte guztiek (bai, gaztelekuak ere bai, baina beste kontu bat direla ez da azaldu behar). Mugako espa-



rruak behar dira formula berriak sortzeko, asmatzeko eta entseatzeko, baita kale egiteko ere. Halaber, kulturako eta kultura-gestioko eredu deseroso horiek guregana heldu behar dute, ofizialtasun ereduak mugitzeko aldatzeko eta berritzeko eta, zergatik ez, justuago bihurtzeko.

Horretarako, muga jarraitu behar dute, guretzat deserosoa izan arren, kultura ofizialaren muga, politikako muga eta sistemaren muga: muga bertan eta kanpo/ kontra, nola ez!

gu geu

Atal barria

Euskara eta Erakundeak atal barria zabaldu dugu zenbaki honetan. Bertan, urte amaierara arte, eskualdeko euskararen egoera irudikatu gura dugu. Lehenengo eginahalean, udal arduradunengana jo du: euskara eta kultura zinegotziak elkarriketatuko ditugu, euren iritziak, egitasmoak eta ekimenak ezagutzeko asmoz. Bizkaiko Aldundiko arduraduna ere elkarriketatzeko asmoa badaukagu. Hasieratik euren prestasuna eta laguntza eskertzen diegu. Alabaina, esan barik doa, erakundetako arduradunetz gainera, den-denona dela euskararen ardura!

UK-ko lan-taldea



ALGORTA, 2014KO MARTZA

Handia ez: erraldoia / Bilbotarren handikeria aipatzen da askotan. Oraingoan ez dakigu handikeria den, bai erraldoitasuna. Izan ere, zortzi gurutzaontzik bistatu gintuzten maiatzaren 27an eta 28an, horien artean irudikoak: *Independence of the seas* ontzi erraldoiak. Getxon geldialdia egin zuten zortziek, 10.000 bidaiari zeroatzen. Egun haietan, kirol-portuko gurutzaontzientzako hirugarren moila ere inauguratu zuten eta Bilboko Portuko Agintaritzak aurreikusten du iaz baino %30 ontzi gehiago etorriko dela aurrean. Tamainako ontziakaz, ez dakigu iragarpena ala mehatxua ete den... O / Argazkia: Asier Menteak

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugul!

Herriko jaietako udal arduraduna bazina, zer egingo zenuke?



o Leioa

Iker Villanueva

> komertziala

Herriko taldeak promozionatuko nituzke kontzertuetan. Leioan normalean kanpoko taldeak kontratatzen dituzte, eta ez dago inolako konpromisorik bertoko taldeakaz. Udalak ez ditu entzuten herritarren iritzia. Orokorrean, herriko gauzak promozionatuko nituzke.



o Erandio

Irene Fernandez

> irakaslea

Duela hamar urteko jaiak berreskuratuko nituzke. Gazteentzako aukera gehiago bultzatuko nituzke, eta guztirako askatasun handiagoa ezarriko nuke, jaietz behar den bezala gozatu ahal izateko. Izan ere, horretarako egiten dira. Ez dakit, duela hamar urte guztia gazteei zuzenduta zegoen.




o Bilbo

Daniel Fernandez

> ikaslea

Nire ustetan, kontzertuak eta gauean egiten diren gauzak nahiko ondo egiten dira. Agian egunean zehar aukera gehiago jarriko nituzke. Hala ere, kontzertuen kasuan, jendeari gustatzen zaion musikaren arabera taldeak kontratatuko nituzke.



o Leioa

Jon Ander Serna

> ikaslea

Nik neuk nahiago nuke kontzertuak entzitetuagoak izango balira, Euskal Herriko taldeak ekarrita. Horrez gainera, musika elektronikoari ere lekua egingo nioke, oso ondo baitago. Horrekin guztiarekin jendea erakarriko genuke; azken batean, jai baten helburua jendea erakartzea eta ondo pasatzea da.



o Leioa

Aritz Tellitu

> ikaslea

Herritarren parte hartzea sustatuko nuke, jaiak herrikoia gozatzeko. Hala, programatzeko orduan herritarren parte hartzea kontuan izango nuke. Horrez gain, gazte-ikuspuntua ere txertatu eta gazteoi bideratutako programa handituko nuke. Egunean zehar ere alternatibak ezarriko nituzke.



o Leioa

Zuriñe Mentxaka

> ikaslea

Txosnetako gunea indartuko nuke eta herritik hurbilago jarriko nuke. Bestalde, egunero kontzerturen bat gehiago jarriko nuke. Izan ere, orain lauretarako dena bukatuta dago eta ordutik aurrera ez dago musikarik. Egunez, beriz, erromeria jarriko nuke arratsaldeko bostetan edo.



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / SAN BARTOLOME ELIZA (LEIOA), 2010

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > opor-zaporea



Barrika, 2014ko maiatza

Testua: **Jone Uria Albizuri** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Espanian behera*

Leku polit gabea
ez da Euskal Herria.
Bistan da, hori ez da
notizi berria.
Hona adibide bat
dugu ekarria:
Ikusita itsaso
ikaragarria,
nori ez ote zaio
sartzen egarria?

Bost Estrella-ko leku
izan litekeena,
Mahouz mahou ezagun
bilakatu zena.
Zeinek ez luke edango
tragoz Heineken-a?
Halakotan alperrik
marka ta izena...
Opor zaporez errez
sartzen baita dena.

Normalean ez dauka
argazkiko antzik.
Itxura hori baietz
izan egun gutxik.
Nik beti aurkitu dut
alderantziz kasik:
dena aulki huts pilaz
beteta ez; baizik,
aulki denak beteta
ta zerbezak hutsik.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25

20808 Getaria

Gipuzkoa



...harria




...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com /Tf. (+34) 943 140 143

europako hauteskundeak > eskualdeko emaitzak



Berango	2014	2009
• EAJ	756	737
• EH Bildu	571	404
• PSOE	210	517
• PP	200	302
• Podemos/Ahal dugu	157	--
• IU/Ezker Anitza	148	35
• UPD	76	45
• C's	42	--

Erandio	2014	2009
• EAJ	2.792	2.870
• EH Bildu	1.345	816
• PSOE	1.301	2.544
• Podemos/Ahal dugu	657	--
• PP	530	893
• IU/Ezker Anitza	483	121
• UPD	216	56
• Primavera Europea	114	--

Gorliz	2014	2009
• EAJ	929	972
• EH Bildu	528	300
• Podemos/Ahal dugu	113	--
• PSOE	94	256
• PP	92	157
• IU/Ezker Anitza	79	35
• UPD	51	23
• Primavera Europea	48	--

Leioa	2014	2009
• EAJ	3.333	3.335
• EH Bildu	1.559	996
• PSOE	1.408	2.967
• Podemos/Ahal dugu	983	--
• PP	982	1.593
• IU/Ezker Anitza	653	205
• UPD	463	213
• Primavera Europea	218	--

Plentzia	2014	2009
• EAJ	745	797
• EH Bildu	408	255
• PP	100	167
• Podemos/Ahal dugu	88	--
• PSOE	69	191
• IU/Ezker Anitza	57	19
• UPD	35	13
• Primavera Europea	24	--

Sopela	2014	2009
• EAJ	1.483	1.534
• EH Bildu	1.335	791
• Podemos/Ahal dugu	371	--
• PSOE	355	702
• IU/Ezker Anitza	250	109
• PP	186	275
• UPD	120	50
• Primavera Europea	93	--

Barrika	2014	2009
• EAJ	221	260
• EH Bildu	168	102
• Podemos/Ahal dugu	38	--
• PP	31	33
• PSOE	25	61
• IU/Ezker Anitza	25	3
• UPD	14	4
• PACMA	9	5

Getxo	2014	2009
• EAJ	9.424	9.693
• PP	6.077	8.519
• EH Bildu	4.762	3.173
• PSOE	2.578	5.862
• Podemos/Ahal dugu	1.868	--
• UPD	1.358	905
• IU/Ezker Anitza	1.213	391
• C's	574	--
• VOX	560	--

Lemoiz	2014	2009
• EAJ	257	216
• EH Bildu	161	92
• Podemos/Ahal dugu	21	--
• IU/Ezker Anitza	15	6
• Primavera Europea	10	--
• PSOE	7	22
• PP	7	11
• PACMA	4	--

Urduliz	2014	2009
• EAJ	602	590
• EH Bildu	397	244
• PSOE	101	191
• Podemos/Ahal dugu	86	--
• IU/Ezker Anitza	82	19
• PP	53	74
• Primavera Europea	32	--
• UPD	26	18

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak > Topaketa Ondarroan

“Emakumeen ahotsa berreskuratu gura dugu, gure borroka aditzera emanez”

Ekainaren 14an egingo da Bizkaiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolen Topaketa, ikasturte amaierako ekitaldia. Aurten Ondarroan elkartuko dira eta hizpide izango dute emakume saharaiuen egoera, baita euren jabekuntza prozesua ere.

—Nortzuk eta zergatik elkartuko zarete?
—Bizkaiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolen sareko partaideak elkartzen gara: Basauri, Ermua, Getxo eta Ondarroako ikasleen ikasturte-amaierako topaketa da. Lehenengo topaketa 2007an izan zen eta denon artean antolatzen ditugu. Asmoa da gai bati buruz hausnartzea, eta espazio informalak bilatzea ikasleekin egoteko eta beraien arteko harremanak bultzatzeko. Aurten emakume saharaiak eta beraien jabekuntza prozesuak izango dira protagonista: egitaraua prestatu dugu UNMS Saharaiuen Batasun Nazionala indartzeko euskal sarearekin batera.

—Zer ekimen egongo da?
—Jardunaldia izango da eta, beraz, hitzaldiak eta erakusketa parte-hartzailea prestatu ditugu eta, bukatzeko, bazkaria. Zehazki, goizean *Saharako ahotsak: ahanzturaren kontrako erresistentzia* erakusketa ikus ahaliko da Alamedan: Saharaiuen egoera eta giza-eskubideen aldarrikapena nabarmenduko dugu, bai okupatutako lurraldeetan bizi direnena, bai Tindufeko kanpaleketan daudenena.
—Nork parte har dezake?
—Bizkaiko Jabekuntza Eskoletako partaideek. Jabekuntza Eskoletan, berriz, Basauri, Ermua, Ondarroa eta Getxoko emakume guztiek parte har dezakete: emakumeen elkarte, kultur eta kirol elkarte, GKE, sindikatuetaoek... eta beste guztiek.



Info+: www.getxo.net/eu/igualdad

—Zein da Jabekuntza Eskolen egitekoa eta zer lortu gura duzue?
—Lortu gura dugu: emakumeon ahotsa berreskuratzea, eta geure sormenak, egin-dako borroka eta ahaleginak aditzera ematea; bizitza publikoan parte hartzean izaten ditugun oztopoak gainditzen lagunduko diguten gaitasunak ikastea eta ga-

dintzetako bat delako. Uste dugu garrantzitsua dela topagune eta gogoeta-gune bat eraikitzea, izan ere, bertan parteka ditzakegu geure esperientzia eta ezagutzak, batak besteari entzunez eta batak bestearengan konfiantza izanez. Prestakuntzak ondokoak piztu behar ditu: geure bizitza pertsonala, eta geure udalerrietako elkarte

“Garrantzitsua da topagune eta gogoeta-gune bat eraikitzea, geure esperientziak eta ezagutzak partekatzeko”

ratzea; elkarte-sareak tokiko politiketan hobeto esku hartzea, bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoetan; eta elkartrukerako sareak ezartzea eta harreman sozial berriak sortzea. Eta zergatik? Ikaste-prozesua bizitzan etengabekoa delako, eta norberaren nahiz taldearen jabekuntza lortzeko nahitaezko bal-

eta politika arloko partaidetza.
—Nola baloratzen duzue Jabekuntza Eskolen garapena?
—Herri bakoitzaren erritmoak desberdinak dira, baina proiektua sendotuta eta finkatuta dago. Horren adibide dira beste herri batzuetako sareak; esate baterako, Gipuzkoako Jabekuntza eskolen sarea. ○



“Bizkaian ALBE da txapelketara bertsolari gehien aurkeztu duena”

Imanol Uria Albizuri > Uribe Kostako bertsolari txapelduna

Ezina, ekinez egina! Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa irabazi du Imanol Uria Albizuri algortarrak. 20 urteko bertsolaria bigarren lotu zen orain urte bi, baina aurten txapelak ez dio ihes egin: *“Lehenengoan artean egotea espero nuen”*. Aurten ere, Arrate Illaro aurreko txapeldunagaz lehia bizia izan du: *“Bizia baino, lehia sana izan da!”*. Izan ere, taula gainean lehiakideak diren arren, txapelketan giro ederra izan dute bertsolarien artean, betiko legez: *“Denok gara ezagunak, eta lagun artean parte hartzen dugu. Azken finean, txapelketa eskualde mailakoa da, baina gure bertso-eskolakook baino ez dugu parte hartzen”*. Algortako Bertsolari Eskola sasoian dagoela argi utzi du Uribe Kostako txapelketak beste behin ere: *“Bizkaian ALBE da txapelketara bertsolari gehien aurkeztu duena”*. Hurrengo erronka, Bizkaiko txapelketan du Uriak, udagoienera: *“Ahalik eta urrunen heltzea da nire helburua, zorte apur batez aurreko emaitzak hobetuz”*. Algortarrak San Nikolas ikastolan eman zituen lehenengo urratsak bertsolaritzan: *“Gogoratzen dut 12 urteagaz BEC-en milaka lagun aurrean puntuka aritu behar izan nuela... eta zuri genatu nintzen! Hura ‘bajoia’ hartu nuen!”*. Gaur egun, Uriak oholtzetara igotzeko beldurra galdu du, baina... *“oraindino ezin izan dut BEC-eko bideo hori ikusi, kar-kar!”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Aixe Getxo! kultur sariak banatuta

Aixegaztea kategoria **barriagaz 14 sari** emon ditu Udalak, **kultur ekimenen** eta **eragileen** lana **nabarmentzeko**; besteak beste, **Antzezaleak** taldea eta **Natalia Monge** saritu **dituzte**

Laugarrenez saritu ditu Getxoko Udalak kultur arloko taldeak eta norbanakoak, Aixe Getxo! sariakaz. Aurten kategoria bat gehitu diete, **Aixegaztea** etorkizun handiko gazteentzako saria, eta beraz, 14 sari banatu dituzte. Sari barri hori emon diote Carlos Goikoetxea piano-jotzaileari eta, besteren artean, ondokoak bereizi dituzte: **Natalia Monge** dantzaria, **Antzezaleak** taldea, **Borja Crespo** zinemagilea, **Paul Rios** Elkarriko kidea edota **El inquilino comunista** musika-taldea.



Saridunak Faduran, maiatzaren 29an

“**Kulturaren** hainbat arlotan, udalerrian sortutako zenbait eragilek eta ekimenek egindako lana, konpromisoa eta zabalkunde ahalegina azpimarratzeko” emoten ditu udalak Aixe Getxo! sariak, Koldo Iturbe Kultura zinegotziak azaldu duenez. Aurten 14 sari banatu dituzte, iaz baino bat gehiago; ondokoak dira:

Ikus eta ikus-entzunezko arteak arloan, Borja Crespo zinema zuzendaria eta ekoizlea, idazlea, ilustratzailea eta komikigilea. Arte plastikoak kategorian, Antzezaleak artista-taldea, udalerrian 32 urte baino gehiagoko ibilbidea duena. Arte Eszenikoan, Natalia Monge dantzari, koreografo, irakasle eta Organik konpainiako zuzendaria.

Musika klasikoa eta garaikidea atalean, Isabel Urrutia piano-jotzaile eta konpositorea. Gaur egungo musika arloan, El

inquilino comunista taldea, “*Estatuan erreferente den indie-rock taldea eta Getxo Sounden aitzindaria*”. Literaturan, barriz, Elena Moreno idazlea eta kazetaria.

Diseinuan, Ana Roquero industria-diseinatzailea eta Red Dot “*izen handiko*

“**Algortako Portu Zaharrari** emon diote saria **kultur ondarearen atalean**”

nazioarteko saria jaso duena Jomon izeneko baxeragatik”. Arkitektura eta eremu publikoa atalean, G&C Esudioa, Biscaytik proiektuaren egoitzan birgaitze lanak egin dituztenak.

Gastronomian, Martina de Zuricaldayren gurin-opila, “*nazioartean ezaguna den opila, ehun urte baino gehiago udale-*

rrian egon den enpresak egindakoa”. Kultura, hezkuntza eta baloreak kategorian, Paul Rios Lokarriko eta kontsultaren aldeko herritarren sareko koordinatzailea. Berrikuntza kultura mailan, Juan Torre ikusteko desgaitasuna duen argazkilaria eta kazetaria, *Ukitzeko irudiak* izeneko ekimenaren sustatzailea.

Kultur ondarea atalean, ondare hautemangarriari eta hautemangaitzari dagokiona, Algortako Portu Zaharra saritu dute. Ibilbide Profesional eta artistikoa sailean, Mikel Albisu aktorea eta J.J. Rapha Bilbao idazlea. Eta, azkenik, Aixegaztea saria etorkizun handiko gazteentzat, Carlos Goikoetxea piano-jotzaileak irabazi du. Maiatzaren 29an izan zen sari-banaketa, Fadura kiroldegiko areto nagusian. ○

Info+: www.getxo.net

Saskibaloia laguntza eske

Getxo Saskibaloi-Taldeak babesu behar du



Kanpainaren leloa: “Saski bat bete lagun gure oinarrian”

Kanpaina abiatu du Getxo Sakibaloi-Taldeak, bazkideak eta babes sozial zein ekonomikoa lortzeko: *Saski bat bete lagun gure oinarrian*. Horretarako, getxoztar ezagunen babes bila ari da lehenik eta hainbatek elkartasuna adierazi dio dabor-duko.

Tartean daude Unai Elorriaga idazlea, Iraide Manzano kirolaria, Nekane Ardanza kazetaria, Xabier Leibar medikua, Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia, Imanol Landa alkatea, Alvaro Gonzalez Kirol zinegotzia, eta Iñigo Iturrate eta Laura Mintegi parlamentariak.

Kanpainaren bigarren fasean, barriz, saskibaloi-taldeak bazkide kopurua handitu gura du eta, horrela, “*bultzada zabalagoa emongo dio proiektuari*”. Taldea lurralde, erkidego eta Espainiako zenbait

kategoriatan lehiatzen da, bai eskola kirolean, bai kirol federatutan. Aldi berean, saskibaloi-eskola kudeatzen du: bertan lehen pausoak egiten ari diren dozenaka ume. Kanpainan parte hartu gura baduzu webgune honetara jo behar duzu: www.getxosaski.com.

Bestalde, Historicup errugbi-txapelketa abiatu da Getxon: Euskadi, Galizia eta Andorrako selekzioak parte hartzen ari dira. Lehen partidaren elkarren aurka jardun zuten Euskadik eta Galiziak. Ekainaren 14an, barriz, Andorrako selekzioaren aurka jokatu dute euskaldunek. Partidarako sarrerak 5 euro balio ditu, baina 14 urtetik beherakoentzako doakoa izango da. Getxo Europako Kirolaren Hiria 2014 egitasmoa ekintzen barrukoa dugu txapelketa. ○

GARBIKETA ETA ZARAMA BATZEA ESLEITUTA

Getxoko garbiketa eta zarama batzeko kontratua esleitu du udalak, zortzi urterako. CESPA eta ASASER enpresek osatutako ABEEari esleitu diote, eta urteko kostua 10 milioi euro baino gehiagokoa izango da. Helburua da epe horretan “*hondakinen %50 modu selektiboan batzea eta bereiztea*” lortzea. Gainera, hondakin organikoetarako edukiontzia ipintzea jasotzen du kontratuak, eta beste hainbat nobedade: edukiontzia barritu, lurperatutako edukiontzia gehiago, etxeko oliorako edukiontzia, e.a. Baina alderdi guztiek ez diote baietza emon kontratuari. EHBildu azpikontratazioaren aurka azaldu da eta uste du “*Getxok oraindik asko daukala egiteko Zero Zabor-en bidean*”; horrela, EAJri exijitu dio “*konpromisoak beteko dituela publikoki berresteko*”.

Info+: www.getxo.net eta bildu@getxo.net

BANDERA URDINAK GURE HONDARTZETAN

Ereaga eta Arrigunaga hondartzei Bandera Urdina emon dizkie, beste behin ere, Ingurugiro Hezkuntza eta Kontsumitzaile Elkarteak; Azkorri-Gorronatxeri, ordea, ez diote emon aurten. Getxoko Udalak jakinarazi duenez, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan ikur hori izango duten hondartza bakarrak dira getxoztarrak: Ereagan zazpigarren urtez izango da Bandera eta Arrigunagan bosgarrenez.

Info+: www.getxo.net

HASI DIRA BIDEGORRI ZATI BARRIETAKO LANAK

Hasi dira bidegorri tarte barriko lanak: ia zortzi kilometro bidegorri prestatuko dituzte lehen fase bitan, udalerriko bederatzi esparrutan. Gogoratzea guztira 32 kilometroko bidegorri-sarea osatzea aurreikusten duela Bidegorri-Planak. Lanak gaur egun dituzte (22:00etatik 06:00etara) eta zortzi astez luzatuko dira. Asmoa da auzoak lotzea ikastetxe, lantegi, merkataritza-gune, kiroldegi, jolas-leku, igogailu eta arrapala mekaniko, metro geltoki, hondartza eta pasealekuakaz.



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Xabier Doncel Vicente > Larry Bird musika-taldeko kidea

“Basauriko sariak sekulako poza emon digu ez geneukalako pretentsiorik lehiaketagaz”



ARGAZKIA: Josu Cobelo

Xabier Doncel (baxua), Asier Goikoetxea (gitarra eta ahotsa), Alvaro Barriuso (gitarra) eta Claudio Pavan (bateria) dira Larry Bird musika-taldea. Aspaldiko ezagunak, gehienek elkarregaz jo zuten Nun taldean. 2012 hasieran sortu zuten Larry Bird, ahal dutenean elkartu eta une horiek lasai dastatzeko gogoz. Halere, maketa grabatu zuten iaz, eta maiatz hasieran euskarazko talde onenari saria irabazi zuten Basauriko Rockein lehiaketan. Gainera, beste hainbat taldetan ere badabiltza: The Great Barrier, Señores, Mobydick band, e.a.

—Euskaraz abesten duen talde onenaren saria emon dizuete Basaurin.
—Ez dugu aurkeztu gure burua lehiaketa askotara, baina Basaurikoa zela jakin genuen eta animatu ginen; kristoren sorpresa hartu genuen finalerako deitu zigutelako. Behin han egonda, euskarazko talde bakarra ginen, baina eskertzen dugu, oso ondo datorkigu-eta saria: kantu bat grabatzea da eta badauzkagu hiruzpalau abesti barri. Oraindino ez dakigu, ez zein kantu grabatuko dugun, ez zein estudio-tan. Kontua da ez garela asko elkartzen

eta, beraz, ez daukagu aukera handirik hitz egiteko. Taldeko gainontzeko kideek, gainera, hainbat musika-taldetan jotzen dute eta asko mugitzen dira. Larry Bird-entzako denbora handirik ez dago, hasieratik horrela adostu genuelako; beste mota bateko proiektua da.
—Zelakoa, lasaiagoa?
—Bai, hasieratik pentsatu genuen gauzak lasai hartzea: batetik, beste musika-talde batzuetan jotzen dugulako; bestetik, adinean aurrera goazelako eta bizitza pertsonalak denbora hartzen digulako, seme-

alabak ditugu... Beraz, hau zaletasuna da eta tartea daukagunean, elkartzen gara eta ondo pasatzen dugu; baina pretentsiorik gabeko taldea gara, eta horrek alde ona eta txarra dauzka. Ona, loturarik ez daukagulako eta datorrenak sekulako poza

«Zaletasuna da, tartea daukagunean elkartu eta ondo pasatzen dugu»

emoten digulako; Basaurikoak sekulako poza emon digu ez geneukalako inolako pretentsiorik lehiaketagaz. Alde txarra da ezin dugula joan talde normalen erritmo-ra, bizitzan bestelako lehentasunak dauz-kagulako.
—Indie-rock estiloa egiten ei duzue.
—Beno, rocka oso zabala da, distortsioa daukan edozer izan liteke rocka eta gurea ez da rock klasikoa. Ez dakigu oso ondo non kokatu, euskaraz kantatzen dugu eta etiketa ipintzearren esan dugu indie-rock. Baina rocketik motz geratzen zaigu, indie-rock ere oso itxia da. Argi dago eszena komun batetik gatozela: Alvarok, Claudiok eta hirurok Nun taldean jotzen genuen, gaztetatik elkarregaz jo dugu eta horrek eragin handia dauka. Goiko ere gure eszena beretik dator, hard-coretik, musika bera gustuko dugu eta elkar eza-gutzen dugu aspaldi: azkenean, talde berean elkartzera bultzatu gaitu horrek. Baina Larry Bird-egaz bueltatxoa emon gura genion orain arte egindakoari. Duela pare bat urte hasi ginen eta handik hila-bete gitxira demo bat grabatu genuen, iragan uztailean. Hasieran kantuak oso azkar atera ziren eta lehen hilabeteak oso frene-tikoak izan ziren. Gero, bizitzaren bestela-ko beharrak zirela-eta, apur bat lasaitu gi-nen. Eta hemen gaude. o

Info+: larrybird.bandcamp.com/releases

Artearen erakusleiho

Olaia Egurenen margoak Utopianen eta Asier Reinoren argazkiak Algortako azokan



Egurenen koadroak Utopian gunean

Erakusketak asko izaten dira Getxon eta horietako biren barri emon gura dugu oraingoan. Batetik, Olaia Eguren Gasconen pinturak; bestetik, Asier Reino argaz-kilariaren irudiak.
Lehenengoa, Olaia Eguren margolari getxoztarraren erakusketa, Utopian gune-an (Errotatxu industrialdeko D eraikina) ikus daiteke ekainaren 22ra arte.
Bestalde, Algortako azokan erakusten ari da argazkiak Asier Reino, Unesco Etxeak antolatuta, Elkarriketarako eta Garapenerako Kultur Aniztasuneko Mun-duko Eguna dela-eta. Erakusketaren izen-burua da *Arraza bat, herri asko* eta ekaina-

ren 19ra arte bisita daiteke (UK-ko zenba-ki honetako Fotografia atalean ere ikus daitezke irudi horietako batzuk).
Erakusketaren helburua da “*kultur aniztasuna eta aberastasuna herritarrengana hurbiltzea eta, aldi berean, batzuetan sortzen diren estereotipo negatiboei buruzko hausnarketa sustatzea, elkarriketa eta bi-zikidetza oztopatzen baititu*”. Hortaz, kul-tura ugariren erakusle da: “*munduko toki desberdinetako irudiak dira*”, antolatzaile-ek diotenez. Getxoko Udalak bultzatzen duen zurrumurruen kontrako estrategia-ren barruan kokatzen da erakusketa. o

Info+: www.utopiangetxo.com

GORPUZTI EGUNA ALGORTAKO PORTUAN

Ekainaren 22an ospatuko dute Gorpuztu Eguna Algortako Portu Zaharrean, domekan. Eguerdian meza egongo da eta, horren ostean, Etxetxu plazan izango dira ekitaldiak: Biotz Alai abesbatzak kantatuko du 13:00etan, bitartean sardina-jana egingo dute eta, arrastiko 19:00etan, Los Txikis taldearen kontzertua izango da.

URIBE KOSTAKO BERTSOLARITZA

Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980) liburuari buruz jardungo dira Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa, ekainaren 19an, egunean. Fredi Paia liburuaren egilea bertan izango da, 19:30etik aurrera. Hitzordua ipini dute Algortako kultur etxean eta gonbidatuta daude irakurzaileak zein bertsoszaleak. Animatuko zara?
Info+: www.egizu.org

ELKARTASUN LIBURU- AZOKA

Urteroko hitzordua da ekain akabukoa: Bigarren Eskuko Liburuaren Elkartasun Azoka egingo da Algortako kultur etxean, hilaren 18tik 22ra. Liburuak euro baten truke salduko dituzte eta bildutako dirua Indiako Dalit GKEari emongo diote; kastako umeak jendarteratzeko eta hezteko lan egiten du. Azokarako sarrera doakoa da.

ISIO DEZAGUN SUA!

Uda bertan dago eta merezi moduan hartuko dugu, San Juan sua isiotuz, piztuz. Auzoz auzo nongura egiten dira suak eta Algortako hainbat elkarrek ere ekitaldia prestatu du: Gorrondatxe kultur elkarte, ALBE, Bizarra Lepoan, Egizu, UKTEST eta Abian kultur elkarteak. Telletxe plazan elkartuko dira 17:00etatik aurrera eta anto-latu dituzte umeentzako jolasak, dantza-festa, txalaparta-emanaldia, bertsolari gaz-teen agurrak, txokolate-jana, kantu herriko-i-ak abesbatzagaz... eta gauera arte suaren inguruan dantzan egin ahaliko da! Erdu jaira!
Info+: www.egizu.org

Inprimatu zure posterra

airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

9,32€

-tik hasita
BEZ barne

cianoplan

GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

Anik Nandi > soziolinguista

“Hizkuntza-politika ona izanagatik ez du zertan iritsi etxe barruraino; esparru hori ikertzen dut”

Anik Nandi indiar soziolinguista Leioan egon zen maiatzean, Indiako hezkuntza aniztasunaren gainean berba egiteko. Baina Nandi, gainera, Galiziako murgiltze-linguistikoko irakaskuntza aztertzen dabil eta ikastoletakoa ikertzea ere gustuko luke.



Info+: hw.academia.edu/AnikNandi

—Duela zazpi urte iritsi zinen Galiziara. —Gaztelania hobetzeko joan nintzen baina beste hizkuntzak ere interesatzen zitzaizkidan. Galiziera ikasi eta graduondokoa egin nuen: lan konparatiboa zen Indian eta Espainian gitxitutako eta mehatxatutako hizkuntzei buruz. Orain Eskozian nago doktorego-tesia egiten hizkuntza-politikei buruz: desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak ikertzen ditut, zelan funtzionatzen duten eskolatik kanpora. Izan ere, kasu askotan erabiltzeko eskubidea izan arren ez ditugu erabiltzen: aldea dago hitz egiteko eskubidea izatearen eta erabiltzearen artean. Galiziera, euskara eta katalanaren kasuak oso desberdinak dira, eta eragina daukate jendearen ideologiek, hizkuntzak zelan garatu diren, Estatuaren eta Autonomien egoerak, e.a. —**Ikastolak ere bisitatu dituzu, ezta?** —Ikastolak oso interesgarriak dira sozio-linguistontzat. Galizian ez geneuzkan,

baina badago proiektu bat eskola bat erakitzeko, *Aboa escola*. Galiziako hizkuntza-politikak ez dauka murgiltze-planik eta guraso batzuek interesa daukate berau garatzeko. *Aboa escolar*i buruz ikertu gura dudanez ikastolen erdua interesatzen zait; etorkizuneko ikerlerroa izan daiteke. Ikastola bat bisitatu nuen eta arreta emon zidan irakasleek eskola amaitutakoan ere egiten dutela euskaraz: horrek giro positiboa sortzen du hizkuntza hitz egiteko, eta

garatzeko, normalizazioa dakarrelako; bestela, umeek usteko dute eskolarako hizkuntza besterik ez dela, eta kalean ez dela erabiliko. Hizkuntza asko desagertzeko arriskuan daude munduan, baina jarrera positibo hori askorentzat baliagarri izan daiteke. Izan ere, hizkuntza-politika ona izanagatik ez du zertan etxe barruraino iritsi, familiaraino. Lan handiagoa behar da, gehiago ikertu behar da ulertzeko zertan huts egiten dugun. ○

Badatoz sua eta sorginak!

Sanjuanak ekainaren 19tik 24ra izango dira eta **Antzineko Eguna** aurreko zapatuan



Jaien aurreko aste akabuan egingo dira Antzineko Eguna eta tabernetako pintxo-lehiaketa

Zoritzarrak erreko ditugu San Juan sutan eta ederto pasatuko dugu jaietan! Aurtan ekainaren 19tik 24ra izango dira *sanjuanak*, baina aurreko aste akaburako ere antolatu dituzte ekitaldiak.

Beraz, ekainaren 13tik 15era, tabernetako pintxo-lehiaketa izango da, eta 14an, Antzineko Eguna: lapiko eta edabe magiko lehiaketak, jolasak, erromeria... zapatu paregabea igarotzeko aukera! Gainera, Urban Eguna ere hasiko da 14an (hurrengo zapatuan jarraituko du): *break dance* txapelketa, erakustaldiak eta kontzertuak prestatu ditu Leioa Dub eskolak Aldapa entzun-aretoan. Gazte-sua jaialdia ere 14an egingo dute, Kandelazubietan.

Txupina, barriz, hilaren 19an jaurtiko

dute Mari Pepak eta Arlotek, eta piztuko da jaia! Sei egunez hamaika ekitaldi egongo dira, askotarikoak: kuadrillentzako probak, antzerkia, kirol-txapelketak... eta musika! Eskaintza zabala izango da. Txosnetan, erromeriak eta kontzertuak antolatu dituzte egunero: zapatuan, barbarako, Ze Esatek! eta Niña Coyote taldeek joko dute. Kandelazubieta kiroldegian, barriz, barikuan egongo dira Zea Mays, Governors eta The Hooks. Erromeriak ere nogura egingo dira, eta goazen dantzatzera!

Eta Akelarrea! Udako solstizioaren gau magikoan bisitatuko dituzte Leioako txosnak sorginek eta galtzagorriek (astelehenean izango da, ekainaren 23an eta gauerdian). Galduko duzu? ○

IKAS-INGURUNE BATEAN PARTE HAR DEZAKEZU EKAINAREN 14AN

Leioan bertan, ekainaren 14an, ikas-ingurune batean parte hartzeko aukera egongo da, Solasgune ekimenak antolatuta. Baina zer da ikas-ingurunea? Adin askotariko pertsonak ikastera elkartzen diren lekua, ikas-giro lasaia, jakinminez beterikoa, lana eta jolasa batzen dituen, guztientzako atsegina; “*pertsonak elkarrekin ikasten dute dakitena, direna, partekatzeaz batera, bizipen hurbil eta irekian*”. Horretarako, bi gune proposatu dituzte: Ezagutza-Azoka eta Zientzia Kalera irakalea. Azokan pertsonak harremanetan jartzen dira dauzkaten ezagutzak komunitatean partekatzeko eta beste batzuegandik ikasteko. Ez duzu izena emon behar, bertaratu eta parte hartu. Zientzia Kalera irakaleari dagokionez, aurten bigarren saioa izango da, eta aukera eskainiko du zientziari buruzko ezagutza txikiak zein handiak partekatzeko. Horretan parte hartzeko izena emon behar duzu: info@herrigune.org eta 944 029 780. Jarduera biak izango dira Bulebarrean, 16:00etatik 19:00etara.

Info+: www.herrigune.org
eta solasgune.com

JOTA-TXAPELKETA EKAINAREN 15EAN

Leioako Udala XIV. Jota-Txapelketa izango da ekainaren 15ean, domekan, 12:00etan eta Kandelazubieta kiroldegian. Maila bi egongo dira, nagusia eta gazteena, eta fandangoa eta arin-arina dantzatu behar dute. Hiruna sari emongo dituzte maila bakoitzean: nagusien mailan, 300, 230 eta 210 eurokoak; eta gazteen mailan 220, 180 eta 150 eurokoak. Lehen sailkatuek, gainera, txapela eta zapia jasoko dituzte, eta bigarren zein hirugarrenek garaikurrak. Parte hartu gura dutenek izena emon dezakete ekainaren 12ra arte. Iaz Haizea Hormaetxea leioazarrak eta Lander Campos santurtziarrak irabazi zuten.

Info+: www.leioa.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Bego Bañuelos Temprano > Gazte-Informazio Bulegoko arduraduna

“Ikastaroetako nobedadea da paintball egiteko urteera, kuadrillen arteko harremanak sustatzeko”

Udako ikastaro-eskaintza argitaratu du Gazte-Informazio Bulegoak eta izena emon daiteke ekainaren 20ra arte. Bertako arduradunak emon dizkigu xehetasunak: aurten, besteak beste, paintball-ean jolasteko aukera egongo da.

—Zer egiten duzue Gazte-Bulegoan?
—Batetik, gazteentzako ekintzak antolatzen ditugu. Bestetik, informazio-zerbitzua daukagu: gazteek zalantzaren bat daukatenean edozein gairi buruz hona etorri eta guk bideratzen ditugu dagokien tokira. Gainera, agiriak egiten ditugu: ikasle-txartela, aterpetxeetarako-txartela, e.a. Unean bertan egiten saiatzen gara.
—Zelako ekintzak antolatzen dituzue?
—Denetarik, baina gure esparrua, batez ere, aisialdia da, laneko kontuak Behar-gintzak kudeatzen ditu-eta. Ikastaroak antolatzen ditugu: sukaldaritza, eskulanak, psikologiarekin lotutakoak, e.a. Eta saiatzen gara urteerak egiten, hori aurrekontuaren arabera. Ekintza guztiak zuzenduta daude 15 eta 29 urte bitarteko gazteei baina, leku libreak egonez gero, gainontzeko pertsoneri zabaltzen diegu eskaintza.
—Udarako zer prestatu duzue?
—Udan gauza lasaiak antolatzen saiatzen gara, jendeak oporrak hartzen dituelako,



Ekainaren 20ra arte izena emon daiteke udako ikastaroetan: gazteinfo@erandioko-udala.net

hondartzara doalako eta asko pentsatuz gura ez duelako. Beraz, ondo funtzionatzen dute sukaldaritza eta eskulan ikastaroek. Iaz patinaje-ikastaroa abiatu genuen eta oso ondo joan zen, beraz, oraingoan ere eskainiko dugu. Eta aurtengo nobedadea da paintball egiteko urteera: kuadrillen arteko harremanak sustatzeko eta zer edo zer desberdina egiteko.
—Hori bera da zuen helburu orokorra?
—Asmoa da: batetik, gazteek zer edo zer egiteko aukera izatea, etorri edo ez beste

kontu bat da, baina gitxienez aukera izatea; eta, bestetik, Erandio udalerriko gazteen artean harremanak sustatzea, auzo guztietako jendea etortzea. Parte-hartzailerik, arazorik badaukate irakasleei esaten diete. Azken finean, Erandio txikia da eta elkar ezagutzen dugu; beraz, gazteek konfiantza daukate euren irakasleari esateko euren balorazioa. Dena dela, proposamenetarako zabalik gaude beti eta, beraz, gazteek badakite iradokizunak bidaltzea: gazteinfo@erandioko-udala.net. ○

Auzoz auzo eta jairik jai

Martiaruko jaiak izango dira ekainaren 13tik 15era eta Erandiogoikokoak 19tik 22ra



Ekain amaieran, gainera, Kukularrako lagunek ospatuko dituzte jaiak

Lotzeko asmorik ez Erandion, aste akaburo dago parrandarako aukera. Hil honetan hainbat auzotan ospatuko dituzte jaiak, horietako bi dira Martiartu eta Erandiogoikoa (Kukularra auzoak hil amaieran ospatuko ditu).
Ekainaren 13tik 15era, beraz, Martiartun izango dira San Antonio jaiak. Ohi legez, sukalki eta sokatira-txapelketak egingo dira, idi-probak, umeentzako jolasak, diskofesta eta dantzaldia; aurten Garilak 26 musika-taldeak eskainiko du erromeria, zapatuan, gauerditik aurrera. Gainera, lehen egunean, ekainaren 13an, meza egingo dute eta nagusientzako

hamaiketako izango da eguerdian.
Bestalde, Erandiogoikoan Gorpuzti jaiak ospatuko dituzte hilaren 19tik 22ra. Lau egun eta hamaika ekitaldi: txistularien kalejirak, herri-afariak eta bazkariak, futbol eta mus-txapelketak, puzgarriak umeentzat, beteranoen partida, euskal dantza-erakustaldia, herri-kirolak, tortillalehiaketa, Udal Musika Banda, paella-txapelketa edota antzerkia (*Ganso* obra).
Eta, zelan ez, musikari ere tartea egingo diote eta kontzertuak emongo dituzte ondoko taldeek: Akerbeltz, Honat, Izargi eta Triskele. Gainera, Xaiborrek diskofesta eskainiko du umeentzat. ○

ALEX TXIKON ASTRABUDUAN

Hitzaldia emongo du Alex Txikon mendigoizale bizkaitarrak Astrabuduko kultur etxean, ekainaren 11n: *Beste era batera* da izenburua eta 19:00etan hasiko da. Txikon orain aste batzuk itzuli da Himalaiatik, Kangchenjunga mendia igotzen saiatu ostean.
Info+: www.alextxikon.com

ABENTURA-EKINTZAK HAINBAT AUZOTAN

Tirolina, ohe elastikoak, puzgarriak, bike balance eta arku-tiroa egiteko aukera daukate asteotan umeek, eurentzako aisialdi eta abentura ekintzak antolatu dituzte-eta. Astrabuduan, ekainaren 14an izango dira, Mendiguren plazan. Altzagan, barriz, hilaren 28an egingo dira, Irailaren 23a plazan. Goizeko 11:00 eta 14:00 bitartean garatuko dira.
Info+: www.erandio.net

PIRAGUA-MAILEGUA DOAN EKAINEAN

Ohitura denez, eguraldi ona hasi eta itsasadarrean piraguan ibiltzeko doako aukera eskaintzen dute Erandion. Ekaineko zapatuetan eta domeketan erabil daitezke piraguak, 10:00etatik 14:00etara. Horretarako, Altzagako ontzirelekura hurbildu behar da. Gainera, azken aste akabuan paddle surf-a egiteko aukera ere egongo da, 16:00etatik 20:00etara.

MUSIKA-ESKOLAKO ENTZUNALDIAK

Ikasturte akabuko entzunaldiak emongo dituzte musika-eskolako ikasleek ekainean, non eta Astrabuduko kultur etxean: 9an, pianoa (19:00); 10ean, akordeoia (19:00); 13an, haize-tresnak (18:00 eta 19:30); eta 18an, entzunaldi orokorra (19:00). Gainera, ikasleek azken kontzertu bat emongo dute Altzagako azoka zaharrean, ekainaren 20an eta 19:00etan.
Info+: www.erandio.net

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez doan!

sustapena@argia.com · 943 37 15 45

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com

www.garaizar.biz

Illeta kalea 1 ALGORTA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

TAO SISTEMA BARRIA
HONDARTZETAN

Ekainetik aurrera TAO sistema barria hasiko dute Sopelako hondartza inguruetan. Aurten, TAOk hainbat ezaugarri izango ditu, auzokide eta bisitarientzat erosoagoa eta eraginkorragoa izango dena, Sopelako Udalaren arabera. Izan ere, auzokideek ez dute TAO-pegatina kotxeetan jartzeko beharrik izango, eta Sopelara etortzen diren bisitariak TAO oraintzean ere ez dute txartela kotxean jartzeko beharrik izango. Aurten, TAO sistemak 1.314 aparkaleku izango ditu. Ordutegia honakoa izango da: 10:00etatik 20:00etara.

Info+: www.sopelaudala.org

IBILBIDE-BOTANIKOA
MUNARRIKOLANDARA

UK Berbalagunak Munarrikolandarako ibilbide botanikoa antolatu du ekainaren 12rako, eguenerako. Txango horretan, bidean ikus daitezkeen zuhaitz eta landare gehienak identifikatzen eta horien erabilera sendagarri ohikoenak deskribatzen saiatuko dira. Horrez gain, Munarrikolandako ezaugarri historikoei buruz aritzeko aukera ere izango da. Hitzordua arrastiko 18:00etan jarri dute, Urkoko aparkalekuan.

IKASKETA-GELAK ZABALIK
UZTAILERA ARTE

Sopelako Udalak azterketak prestatzeko gela egokiak zabalik mantenduko ditu uztailaren 13ra arte. Udal-Liburutegia astelehenetik eguenera 09:30etik 13:30era, eta 16:30etik 20:30era; barikuetan 09:30etik 13:30era, eta 16:30etik 19:45era egongo da zabalik ekainean. Uztailean, barriz, 09:00etatik 14:00etara zabalduko dute, astelehenetik barikura. Kurtzio kultur etxea, oster, ekainean asteburutan bakarrik zabalduko dute, 08:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Uztailean, orde, astelehenetik barikura ere irekiko dute, 16:00etatik 20:00etara. Asteburuetan ekaineko ordutegi bera mantenduko dute.

Ospitalerako sarbideak
Azpiegitura barrira iristeko **alternatiba bila**
ari da Sopelako Udala



Auzokideek ahalik eta eragin gutxien jasatea dute helburu

Urdulizko ospitalerako sarbideei alternatibak bilatuko dizkiela jakinarazi du Sopelako Udalak. Maiatzaren 5ean horren inguruko bilera egin zuten, hainbat erakundetako ordezkariak bertan izan ziren. Saioa Villanueva Sopelako alkateak adierazi zuen horrelako azpiegitura bat eraikitzea *“positiboa”* dela eskualdearentzat. Hala ere, jakinarazi zuen horrek auzokideei hainbat eragin negatibo sor diezazkiekela, *“autoen joan-etorria hantitu daitekeelako”*. Horrenbestez, Villanuevak proiektu horregaz lotura duten erakunde guztiek eragin negatiboak gut-

xitzeko elkarlanean jardun behar dutela azpimarratu zuen.

Bildutako erakundeen proposamenaren arabera, ospitalerako sarbideak Sopelako Olabide kaletik eta Larrabasterratik izango dira. Gainera, Olabide kalearen amaieran errepidea eraikitzea aurreikusi dute. Hala ere, udalaren arabera, horrek ez du arazoa konponduko. Hala, Sopelako Udalak Urak Bide enpresa kontratatu du gai horren inguruan txosten tekniko bat egin dezan eta bestelako alternatibak aztertze. Txostenaren aurrekontua 19.481 eurokoa da. ○

Sofia Abaitua > immigrazioa eta bazterketa soziala

“Diskurtso politiko batzuen arabera, etorkinak dira arazo guztien erantzuleak”



Immigrazioari eta bazterketa sozialaren inguruko hitzaldia izango da ekainaren 13an

Azken boladan Bizkaian etorkinen egoera pil-pilean dagoela-eta, Sofia Abaitua Ekimen elkarteko kideak immigrazioaren eta bazterketa sozialaren inguruko berbaldia eskainiko du hilaren 13an Kurtzio kultur etxean, 19:15etik aurrera.

—Sestaon gertatu berri den egoera eragotzi gura duzue, ezta?

—Bai. Izan ere, diskurtso politiko batzuen arabera, etorkinak dira herrialde batek jasaten dituen arazoaren erantzuleak; eta gauza horiek min handia egiten diote gizarteari, are gehiago konfiantzazko politikoei halakoak esaten dituztenean. Guk uste dugu beharrezkoa dela etorkinen benetako egoera zein den erakustea, diskurtso hauek apurtu ahal izateko.

—Zer zailtasun jasaten ditu etorkin batek herrialde berri batean?

—Migrazio-prozesu baten zailtasunak ez dira hasten estatu berrira heltzean, bidaia hasterakoan baizik. Horretan, hainbat arriskuri eta zailtasuni aurre egin behar

diote, euren bizitza arriskuan ipiniz. Gero, behin helmugara helduta, aurkitzen diren zailtasunak ugariak dira. Lehenengo arazoa irregulartasun egoeran bizitzea da, eta ondorioz, edozein eskubide erabiltzeko zailtasunak biderkatzen dira. Adibidez, EAEn, 2013tik irregulartasun egoeran bizi diren etorkinek ezin dute parte hartu Etxebide bezalako zerbitzu publikoetan. Horren ondorioz, pertsona horiek etxebizitzaren merkatu librerara jotzeko beharra dute, horrek dakarren zailta-

«Erroldatzea ezinbestekoa da giza berme minimoak eskuratzeko»

sun guztiekin. Etorkinentzat herrialde berri batean ezinbestekoa da etxebizitza bat izatea, juridikoki giza berme minimoak eskuratzeko beharrezkoa delako. Izan ere, erroldatzea osasun txartela eskuratzeko, giza baliabideetara sarbidea izateko eta erregularizazio administrazioaren prozesua hasteko lehen baldintza da. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**OIARBIDE
DEKORAZIOA**

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabx 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



**zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

BERANGOKO ARDOAREN EGUNA EKAINAREN 15EAN

Ekainaren 15ean, domeka, Berangoko Ardoaren Eguna egingo du Mahatsa Laguntzaileak elkarteak, Berangoko Udalaren laguntzagaz. Eguerditik aurrera eta arrastiko 15:00ak arte, tokiko 21 ardo ekoizle egongo dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, txakolina doan dastatzeko aukera izateaz gainera, jatekoak ere banatuko dituzte.

LAU LANGABERENTZAKO LAN-ESKAINTZA

Uribe Kostako Mankomunitateko Behargintzak udalerriko lau pertsona bost hilabetez kontratatzeko programa jarriko du martxan, Berangoko Udalaren laguntzagaz. Aipatu iniziatiba Lanbiden izena emanda duten tokiko langabeei zuzenduta dago. Izan ere, egin beharko diren zereginetan honakoak egongo dira: sastrakak kendu, bideak garbitu eta espaloiak konpontzeko obra txikiak egin, besteak beste. Aurreikusi dutenez, aipatu programa ekainean abiatuko dute.

Info+: www.lanbide.net



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com


MR TALLER MECANICO

Coches, Motores Marinos y Fuerabordas

Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargeltzaileak, Soinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO



Möbius Sounds Project > nazioarteko musika-taldea

“Era askotako gaiak jorratzen ditugu, betiere kalitatezkoak eta sakonak



Lau musikariok osatzen dute taldearen oinarria

Nazioarteko abestiak jorratzen dituen musika-taldea jaio da Berangon, Möbius Sounds Proyect izenekoa. Talde esperimentalak dela azaldu dute kideek, aldakorra eta mundu osoko doinuak bazen dituen oholza gainean.

—Taldea aldakorra osatzen duzue, zelan funtzionatzen du horrek?
—Oso sinplea da. Alde batetik taldearen oinarria dago, eta musika-emanaldietan gutxienez beste musikari bat elkartzen zaigu. Bestalde, hainbat azpitalde osatu ditugu musikarien arteko kidesun eta gustuen arabera. Horrekin batera, Ingrid eta Rafa bakarlari moduan aritu ohi dira.
—Nortzuk osatzen duzue taldea?

—Möbius Sounds Project nazioarteko abestiak interpretatzen dituen talde esperimentalak da. Taldearen oinarria lau musikari osatzen dugu, baina kontzertuaren arabera beste hainbat musikari bazten zaizkigu. Oinarritzko taldea osatzen dugunok Julia, Ingrid, Teresa eta Rafael gara. Halaber, normalean Julen, Aitziber

eta Isidro ere gurekin aritzen dira.
—Zer-zelako gaiak jorratzen dituzue?
—Era askotakoak, betiere kalitate musikala eta sakontasuna dutenak. Horretarako, hainbat hizkuntza erabiltzen ditugu: euskara, gaztelania, ingelesa, frantse-

«Nazioarteko musika herritarra jorratzen dugu, hainbat hizkuntzatan»

sa, alemaniera, suediera, norvegiera, grekera, arabiarra, italiarra, kitxua eta txinatarra.
—Zuen musika etiketatu beharko baze-nute, zer motatakoa izango litzateke?
—Oso zaila da guk egiten dugun musika etiketatzea, baina esan genezake nazioarteko musika herritarra edo tradizio-nala egiten dugula, “world music fusion” izena izango lukeena.
—Hurrengo kontzertua non eta noiz?
—Momentuz, Sopelako *sanpedroetan* joko dugu, Lurren tabernan. Hala ere, udazkenetik aurrera agertuko gara indartsuago. ○

Dale ke Aun Respira (DAR) > disko berria grabatuta

“Aldaketa ugari jasan ostean, prest gaude kontzertuak emateko”



Fede Ileañak, Aitor Okinak, Ruben Matiak eta Ibai Aginagak osatzen dute taldea

Urte biko geldialdiaren ostean, zuzenekoetan dena emateko prest dago Dale ke Aun Respira (DAR) talde uribekostarra. Disko berri bat grabatu dute, *Adi* izenekoa, eta, jakinarazi dutenez, parodia berri eta “potenteak” dakartzate.

—Disko berri bat grabatu duzue, *Adi* izenekoa, noiz egongo da kalean?
—Lau abestiz osatutako LPa egin dugu, eta bosgarren abesti bat grabatu dugu Guerrilla Urbana taldearen bilduma baterako. Lana ekainean edo kaleratuko dugu; ez dugu oraindik data zehatzik horretarako, baina uda hasi baino lehen izatea espero dugu. Ohi bezala, lana dohainik deskargatu ahal izango da gure webgunean, baina fisikoki ere eskuratze-ko aukera egongo da, bi euroren truke.
—Taldeen kideen aldaketa ugari izan dituzue, baina dagoeneko taldea finkatu duzue berriro ere. Prest zaudete kontzertuak ematen hasteko?
—Bai, guztiz prest gaude. Data zehatzik ez izan arren, dagoeneko kontzertu bi ditugu

hitzartuta: Sestaon eta Algortan. Horre-gaz batera, lan berria gaztetxeren batean aurkezteko asmoa ere badugu. Momentu honetan taldea lau kidek osatzen dugu: Aitor kitarran eta albokan, Ibai baxuan, Ruben baterian eta Fede abesten. 2007an sortu ginenetik taldeak aldaketa ugari izan ditu, hasiera batean bost ginen, gero sei, eta orain lau. Hori dela eta, gauza ugari

«Zuzenekoetan abestiekin lotura duten parodiak egin ohi ditugu»

moldatu behar izan ditugu zuzenekoak emateko. Hala ere, dena prest dugu “kaña ematen” hasteko: antzerki berriak, abesti berriak...
—Ez zarete talde arrunta, zerk bereizten zaituzte?
—Zaila da esatea zein den gure musika estiloa. Punkean oinarritu gaitzake, baina ukitu ugari ematen dizkiogu abesti guztiei. Horrekin batera, gehien bereiz-tzen gaituena zuzenekoetan egiten ditugun antzerki-parodiak dira. ○

OSTAIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



UKnatura

ZITEK PORTUGALETE
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALETE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48960 PORTUGALETE (BIZKAIA)

2013-2014 KURISOA

- *BIOERAKUNTZA TALDEARRAK
- *ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- *BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRIZLAGARRIAK
- *HABAZI KAYAK

eta askoz gehiago...

www.uknatura.org 692705471 / 646742241



COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



zaindu

Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin

Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779



MARGOLARI GAZTEEN LEHIAKETA BARRIKAN

Barrikako Udalak gazteenentzako aire zabaleko margo-lehiaketa antolatu du ekainaren 15erako, domeka. Bertan 0 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, lau kategoriatan banatuta: 6 urtera artekoa; 7 eta 9 urte artekoa; 10 eta 12 urte artekoa; eta 13 eta 17 urte artekoa. Lanak kalean egin beharko dituzte, goizeko 09:00etatik arrastiko 17:30era arte.

Info+: www.barrika.eu

INFORMATIKA IKASTAROAK GORLIZKO NAGUSIENTZAT

Gorlizko jubilatuek informatikaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izango dute Gurutze Gorriak emango duen ikastaroari esker. Hala, ekainaren 10etik 26ra bitarteko martitzenean eta egunean informatikan murgilduko dira udalerriko nagusiak, 16:30etik 18:00etara. Hamar lagunentzako lekua dago.

TXANGOA ESKUALDEKO GAZTETXEETARA

Eskualdeko gazteteak eta okupazio-mugimendua ezagutzeko berbatxangoa egingo dute ekainaren 15ean, domekan. Hitzordua 09:30ean Sopolako elizan eta 09:45ean Algortako Telepizza ondoan jarri dute, autobusa hartzeko. Bisita 10:00etan hasiko dute Erandioko Kalezulo gaztetearean. Ondoren Txorimalo eta Sekeko bisitatuko dituzte. Aitxul!, Berbots eta Egizu euskara elkarteek antolatzen dute berbatxangoa.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kosta

Imanol Uriak jantzi du Uribe Kostako Bertsolari Txapelketako txapela



Arrate Illarogaz jokatu du buruz burukoa Imanol Uriak

Imanol Uria algortarrak irabazi du Uribe Kostako Bertsolari Txapelketako finala, Arrate Illarogaz buruz burukoa irabazi ostean. Hala, Uriak Bizkaiko Txapelketan lehiatzeko zuzeneko txartela lortu du. Maiatzaren 24an Algortako Fadura kiroldegian izan zen finala, eta Uriagaz batera, Arrate Illaro Etxebarria (233 puntu Bizkaiko Txapelketarako), Itxaso Paia Ruiz (225,5 puntu), Joanes Igeregi Santa Maria (224 puntu), Josu Landeta Egurrola (215 puntu) eta Peio Arondo Barandiaranek (205 puntu) jardun zuten. Buruz burukoa Illarok eta Uriak jokatu zuten, eta azken horrek jantzi zuen txapela, 365 puntugaz; eta udagoieneko Bizkaiko Txapelketarako zuzeneko txartela lortu du. Illarok, barriz, 344 puntu lortu zituen, eta 233 puntu ditu Bizkaiko Txapelketarako sailkapenerako.

Barrikako nagusien etxean izan zen maiatzaren 9an Uribe Kostako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa.

Horretan, Aitzol de Castro Bakeriza leiostarra, Joanes Igeregi Santa Maria sope-loztarra, Josu Landeta Egurrola getxoztarra eta Arkaitz Gomez Agirre, Dani De Miguel Avecilla eta Ekaitz Larrazabal Gutierrez algortarrak aritu ziren. Bigarren kanporaketan Miren eta Paule Loi-

«Udagoieneko Bizkaiko Txapelketarako zuzeneko txartela eskuratu du Imanol Uriak»

zaga Legarra sopoloztarrek eta Gabi Baññez Ruiz, Iñigo Kortazar Elias, Peio Arondo Barandiaran eta Peru De Pedro Larrea algortarrek abestu zuten. Azken kanporaketa Sopolako Ander Deunan jokatu zuten, eta saio horretan Maddalen Markaida Santamaria berangoztarrak eta Arrate Illaro, Imanol Uria Albizuri, Itxaso Paya Ruiz, Jagoba Pereda Txopitea eta Pello Etxebarria Kerexeta algortarrek abestu zuten. o

Eka. 9 - Eka. 23

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO
► Arraza bakarra, herri mordo (Asier Reino). Ekainaren 19ra arte. Algortako azokan. Doan.

ERANDIO
► Port art. Ekainaren 11tik 15era. Irailaren 23a plazan.

PLENTZIA
► Patchwork tailerreko lanak. Ekainaren 16tik 27ra. Goñi Portalen.

ZINEMA

ERANDIO
► Noe. Ekainak 14, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

BERANGO
► Azti txikia. Ekainak 15, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.
► 12 años de esclavitud. Ekainak 21, 19:00etan. Berango Antzokian.
► Frozen. El reino del hielo. Ekainak 22, 18:00etan. Berango Antzokian.

GORLIZ
► Amarratz Surf: bideo-emanaldia. Ekainak 20. Xurrut tabernan.

ANTZERKIA

BERANGO
► La lisistrata. Ekainak 13, 20:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO
► Vidente por accidente (Aztia taldea). Ekainak 14, 19:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 3 euro.



► Bertsolaritza

Balkoitik balkoira ekainaren 20an, barikuan

Bertsozaleek gogoz hartzen duten hitzordua dugu Balkoitik balkoira. Algortako Portu Zaharrear egiten dute, Etxetxu plazan, eta bertsolari bik kantatzen dute aurrez aurre, plazako bazter bitako balkoi banatatik, nor baino nor, antzina moduan. ALBE Algortako Bertsolari Eskolak eta Getxoko Euskara Zerbitzuak antolatzen dute ekitaldia orain dela 15 urte: 1999an egin zuten lehenengoz. Urte hartan Egañak eta Lizasok kantatu zuten, eta ordutik hona hamaika bertsolari igaro da balkoi horietatik. Oraingoan Aitor Mendiluzeren eta Unai Agirreren txanda izango da. Ekainaren 20an kantatuko dute bat-batean, barikuan, gaueko 22:00etatik aurrera. Ez hutsik egin!

• Non: Algortako Portu zaharrear • Noiz: Ekainaren 20an

► Pensar en alto (Totum taldea). Ekainak 15, 19:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 3 euro.
► Vida en Marte. Ekainak 15, 19:30ean. Utopianen. 10 euro.

SOPELA
► Tangoa. Ekainak 15, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean. 3 euro.

ERANDIO
► El señor de Martiartu (herri-antzzeria). Ekainak 27, 19:30ean. Altzagako azoka zaharrear. 2 euro.

MUSIKA

PLENTZIA
► Kantujira. Ekainak 13, 20:30ean. Eliza enparantzatik.

BERANGO
► Musika klasikoa. Ekainak 14, 19:00etan. Berango Antzokian.

GETXO
► Biotz Alai abesbatza + Andres Isasiko Banda. Ekainak 18, 20:00etan. Algortako Biotz Alai plaza.

► Las Arenas flamenko-eskola. Ekainak 22, 12:00etan. Biotz Alai plaza.

ERANDIO
► Ultraviolet (U2 taldearen omenez). Ekainak 21, 22:00etan. Astrabuduko Josu Murieta plazan. Doan.

GORLIZ
► Kherau + Capitan Elefante + Red Rooster Rebellion. Ekainak 21. Xurrut tabernan.

BESTEAK

ERANDIO
► Hitzaldia: Beste era batera (Alex Txikon). Ekainak 11, 19:00etan. Astrabuduko kultur etxean.
► Aisialdi eta abentura ekintzak. Ekainak 14, 11:00etatik 14:00etara. Astrabuduko Mendiguren plazan.

SOPELA
► Hitzaldia: Immigrazioa eta gizarte-bazterketa. Ekainak 13, 13:00etan. Kurtzio kultur etxean.
► Motorren erakusketa. Ekainak 21, 13:30ean. Udaletxeko plazan.

SOPELA
► IX. Kosta Trail. Ekainak 15, 09:00etan.

BARRIKA
► Margolari gazteen txapelketa. Ekainak 15. Oinarriak liburutegian.

LEIOA
► Jota-txapelketa. Ekainak 15, 12:00etan. Kandelazubietan.

GETXO
► Literatur-solasaldia: El niño que robo el caballo de Atila (Ivan Repila). Ekainak 19, 19:45ean. Villamonteko liburutegian. Doan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Kontuz, lanak!

Eraikuntza ete da bizi dugun krisi-sasoi honetako sektore jipoituenetako bat? Garai bateko gehiegikeriaren ostean, lehortea bizi ei du... Hala ere, adreiluek bata bestearen gainean pilatzen jarraitzen dutela ezin ukatu. Eraikin berriak ez badira, han-hemengo konponketa-lanak dira, edo bazterretan, bideetan altxatzen diren azpiegitura berriak... Denak beharrezko balira, denak beteko edo erabiliko balira gaitz erdi! Baina...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Azoka eguna

Plentzian

Elizako enparantza jendez lepo...
 Batzuk, meza amaitzean, kalera
 bidean; beste batzuk, itxaroten...
 Inguruetako baserritarren eta
 arrantzaleen otzara bete produktuek
 usaineztatu eta freskatu dute plaza...
 Salerosketarako edo trukerako
 aldartea berotzera doala emoten du...
 XIX. mende hasierako azoka egunez
 Plentziako eliza aurreko plazan
 egindako argazkia da.
 Atzo, gaur legez, ezin jakin baserritar
 zein arrantzaleak poltsikoan sos
 batzukaz ala otzara beteta itzuliko
 ete ziren etxera...

PLASENTIA BUTROE MUSEOA

[berbetan]

Gernika Lemoizen musika, dantza, literatura eta irudiz jositako ikuskizuna aurkeztu zuten apirilean Gernikan eta Donostian. Zentral nuklear izateko altxatu zen Lemoizeko fabrika-azpiegituran grabatu zuen Irati Gorostidik (Eguesibar, 1988) Manuela Carretta (Schio, Italia, 1965) dantzan. Juan Gorostidi (Altza, 1956) ekoizle, koordinatzaile eta zuzeneko emanaldiaren zuzendari duen lanak Mikel Laboa katedrako laguntza izan du; izan ere, haren abestiak dira ikuskizunaren oinarrietako bat. Musika zale amorratua da Gorostidi, horren lekuko *Lau kantari* (Pamiela, 2011) liburua edota *badok.info* guneko bere bloga; psikologia eta musika ikasketak ditu, eta tai chi irakasle ezaguna da. Gorostidik iragarri duenez, udagoien-negurako, Euskal Herrian biratxoa egiteko antzoki edo oholtza bila dabilta orain.

Juan Gorostidi

Gernika Lemoizen, kultura sendabide

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **ArgazkiPress**

—Zelako izan da *Gernika Lemoizen* ikuskizunaren sortze-prozesua? Mikel Laboa katedraren laguntza izan du...

—Nik Manuela Carretta dantzari italiarra ezagutzen dut eta berak, orain dela bost bat urte, Mikel Laboaren musika ezagutu zuen, nire bitartez, eta oso txundituta gelditu zen. Berak flamenkoa dantzatzen du, flamenko oso garaikidea, esan nahi dut, ez flamenko folkloriko hori... Orduan, lan batzuk sortu eta bideo batzuk grabatu zituen Italian bertan. Hor-tik etorri zen, batez ere, Laboaren atal bat lantzeko gogo, *Lekeitioak*, bere alde esperimental hori. Lehenengo lana grabatu zuen *Lekeitioak*-eko “Orreaga”, bere webgunean ikusgai duzuen; eta hurrengoa, argi zuen berak, “Gernika” izan behar zuela. Eta non grabatu, nola egin pentsatzen genbiltzala, orduan unibertsitateak katedra sortu zuen; bi gauza batera etorri ziren: batetik, katedrak interesa izan zeza-keela halako lan batekiko, nahiko berria zelako eta inork ez zuelako modu horretan tratatu Laboaren lana; bestetik, kokapenaren aldetik Lemoizeko ideia otu zi-

tzaigun. Gernikarekin eta nolabait suntsipenarekin zerikusia zuen kokapena behar genuen... Nik han ateratako eta oso ezagunak ez ziren argazki batzuk ikusi nituen orduan, eta garbi ikusi genuen: Gernikak sinbologian eta historian daukan indarra, eta geroko Lemoizek daukana elkar zitezkeela. Eta hara jo genuen: unibertsitatearen bitartez baimena eskatu, esperantza handiegirik ez geneukan, baina azkenean, baietza heldu zitzaigun... Eta joan den udan abiatu ginen: lehenen-


“Grabaketa irailean izan zen, nahiko problematikoa... Eta sentsazio arraroa genuen: erdi-lapurtua edo zela”

go bisita uda hasieran izan zen, kokapena eta lekuak hobeto ezagutzeko; grabaketa irailean egin genuen. Gero etorri zen lan gogorrena, baina, grabaketa bera nahiko problematikoa izan zen, baietz esan ziguten, baina aldi berean...

—Lemoizko zentralera sartu, barruan grabatzeko eta baimen kontuak...

—Iberdrolatik baietz esan ziguten unibertsitateak eskatu zuelako! Baina, bestalde, han ginenean ematen zuen damutzen zirela... (kar, kar) Lehenengo barrura ezin genuela sartu, gero kanpoan “nahi duzue-na ere ez; non nahi duzue?” Beraz, kokapen batzuk zehaztu genituen, batzuei baietza eman zieten, besteei ezetza. Hiru egun eman zizkiguten, gero bat kendu; ilunabarrean ere grabatu nahi genuen, ezinezkoa... Alde horretatik nahiko deseroso ibili ginen, batetik utzi egin zigu-

ten, bestetik behin ere ez gintuzten bakarrik utzi, beti hor gure zain... Beti muga jartzen, denbora oso laburrez egon beharra, baldintza tekniko aldetik oso modu... Hiru lagun ginen, dantzaria, Irati Gorostidi kamera, nire alaba, eta zuzendari edo laguntzaile neu; muga-mugan grabatu genuen: denbora gutxirekin, toma azka-



rrak egin beharrean, presio handiarekin... Hala lortu genuen materiala, halako sentsazio arraroa genuen: erdi-lapurtua zela... Lan hori oraindik ez da erabat publikoa Euskal Filmategiko Kimuak ekimenera aurkeztu dugulako, horrek pixka bat itxarotea eskatzen digu. Gernikan eta Donostian eman genuenean ikusi zutenengan, egia esan, badirudi harrera oso ona izan duela; esan digutenez, bai musika aldetik bai hizkuntza zinematografikoa oso lortua dagoela erritmo aldetik eta abar. Nahiko zaila da aktore bakarrarekin halako hamar minutuko luzera duen pieza sortzea, musika aldetik oso indartsua dena; ondo uzartzea hori guztia.

—**Buztartzea aipatuta, zuk adierazi legez, “Nola elkartu Kafka, Laboa eta flamenkoa; nola Gernikako bonbardaketa eta energia nuklearra —Gernika eta Lemoiz sinbolo gisa—; musika, dantza, antzezpena eta bideolana... Batuketak, pilaketa izan behar ez duenez...”**

—Hara, niretzat garbi dago Gernika dela XX. mendearen gertakari edo aldaketa historiko baten ezaugarri argiena mundu osorako; Gernikan saiatu zirelako gerra egiteko modu berri batzuk, ordura arte oraindik entseatzen ari zirenak, hau da, abiazioaren eta herri zibilaren kontrako erasoak. Horiek erabat hedatu ziren II. Mundu Gerran, baina lehen saioak Afrikan eta, gero, hemen izan ziren. Eta gertatu ziren hainbat kointzidentzia edo gertakariri esker, Times-eko erreportari hura Gernikan zegoela, Eusko Gobernuaren laguna zena, argitaratu zuela erreportajea, Londresetik mundu zabalera hedatu zela garai hartan; gero Picassorena... Halako beste bonbardaketak izan ziren lehenengo Durangon, gero Bilbon, ondoren Europa osoan; baina, sinboloa Gernika da. Gerra egiteko moduak historian zehar aldatu egin dira; XX. mendekoen nolabaiteko aldaketaren ezaugarria eta sinboloa Gernika da. Alde batetik hori; bestetik, energia nuklearra. Niretzat, gerrari lotuta dagoen zerbait da, hau da, II. Mundu Gerra ho-

rrela bukatu zen, baina baita hurrengo gerrate bat hasi ere, Gerra Hotza; eta gerra eta “bakea” bateragarri egiten dituen: energia nuklearraren hedapena. Gai zabalada, baina ematen du gauza bat dela gerra (bonbak, suntsipena e.a.) eta bestea argindarraren produkzioa; eta XX. mendean dena batu dute! Gauza jakina da teknologia berri asko gerrateetan ikertzen, prakti-

“Gerra moduetan aldaketaren sinboloa Gernika da; energia nuklearrarena, niretzat gerrari lotua, gurean Lemoiz”

katzen eta aurreratzen direla, eta gero bizitza zibilera zabaltzen direla; baina kasu honetan, suntsipen-teknikak dira. Hor datza halako dimentsio bat: gizarteak hartu duena, mundu mailan, non energia atomikoa... Nik hiru olatuz hitz egiten dut: energia atomikoa inposatzen saiatzen dira, gure energia-arazo guztiak konponduko dituen iturri edo alternatiba bezala aurkeztuz; eta beti gertatu izan da, eta orain arte hiru aldiz, modu oso nabarmenean, istripu bat juxtu ematen duenean jende guztiak ideia hori “onartu” edo duenean; boteredun jende guztiak, medioek eta horiek guztiek ia lortu dutenean “oraingotan bai, konbentzitu ditugu eta erabat hedatuko gara...”. Eta momentu horretan istripuak: Harrisburg (1979), Txernobil (Ukraina) eta Fukushima. Ondorioz,

“Flamenkoa, hemen arazotsua... Ordea, joera pila daude eta herri-kultura zapaldu baten erakusgarri bortitza da”

halako atzera egitea dakar, “ez da momentua”. Guretzat Lemoiz da horren guztiaren sinboloa; hor dago, ezkutuan bezala, oso agerikoa bada ere... Iberdrolakoek beraiek ere esaten zidaten ezin dutela ukitu, ezin diotela biderik eman, guztiz tabua dela beraientzat ere... Hain traumatikoa izan zen, eta 30 urte pasa dira dagoeneko, ezen

ezin da ukitu; hor dagoen halako fantasma bihurtu da. Niri iruditzen zitzaidan oso bateragarria zela gaia; hori eta Laboak hain ondo landutako obra horretan, *Lekeitioak*, hain ondo islatua dagoen desesperazio, galderak, ezinegon horiek... Euskal Herrian, Lemoizen izan behar zuen. Bestalde, alde artistikoari edo espre-siobideei dagokienez, nire ustez, Laboak

baditu bizpahiru lan non bere gorena jotzen duen, eta horietako bat “Gernika” da, dudarik gabe. Horrek berak sekulako indarra eta gaitasuna dauka adierazpen horretarako; eta gero flamenkoa dago. Flamenkoa Euskal Herrian oso problematikoa izan da; noski, frankismo garaian flamenkoa erabili zutelako beraien ikur bezala. Baina flamenkoa ez da hori, flamenkoa beti izan da, Andaluzian bertan, botereak jazarria. Kontua da flamenkoaren zati bat, alde folklorikoena, gero telebistaz eta hedatu zutena, hartu zutela ikurtzat; baina, zapalduak izan dira betidanik... Flamenkoan tendentzia eta joera pila daude, eta herri zein kultura zapaldu baten erakusgarri bortitza izan da. Gordintasun hori, niretzat, oso ondo lotzen da azaldu edo landu nahi genituen gaiekin, badaukalako

teko modua, bere hizkuntza hori dantzariak erakusten zuenarekin. Bitxia dena da, hori kanpotik etorri zaigula: italiar batengandik, pentsa zer lotura daukan berak flamenkoarekin eta Euskal Herriarekin! Batzuetan halako karanbolak edo kointzidentziak gertatzen dira... Kasu honetan, eta askotan, horrek ahalbidetzen du norberak egin ezin duena, hurbilegi daukala-

“Lekeitioak-ek islatzen du desesperazio, galdera, ezinegona... Baina bada “Haika mutil!”: bizitzan segi aurrera!”

ko, bada kanpotik datorren horrek egitea, bide bat erakustea. Gauza txikia da, nire ustez, halako zerbait gertatu da, erasana hori da: kanpoko zerbait, oso gurea den zerbait eta elementu guztiz arrotza sentitzen duguna lotu eta ikusi hor dagoela... Ikusi eta sentitu egin behar da; baina in-tuizio hori bazegoen eta gauzatu egin da: emankizunetan eta bideoan erakutsi egin dugu, nik uste.

—**Kafkaren Legearen aurrean idatzia ere entzuten da, Itxaro Bordaren ahotsean.**

—Hara, hori beste dimentsio bat da. Azken finean, irudiak abstratuak dira, Laboaren pieza abstraktua, hitzik gabea. Nonbaitetik sartzen dira, sentimendura jotzen dute zuzenean; baina, nolabait, ikuskizun baterako pieza solte eta banatuak gera ez zitezen, 40 minutuko emanaldi bat sostengatzeko, momentu batzuk josteko hari bat behar nuen, zenbait momentutan irudia, musika eta dantza lotzeko haria: testu ba-

ten bila hasi nintzen. Kafkak testu hori 1914ean idatzi zuen, 100 urte pasa dira geroztik! Hau guztia prestatzen ari zen momentu batean idatzi zuen, baina oraindik agerian ez zegoenean, oraindik I. Mundu Gerra jazo gabe... Kafka nolabaiteko profeta izan zen, bere literaturan deskribatzen du jada ze mundu zetorren. Nik testu labur bat behar nuen, ezin zuen izan gazta han-

dirik: ez aurrekontu aldetik ezta planteamendu aldetik ere, ez genuekan aktore batzurekin antzerki bat egiteko aukerarik... *Legearen aurrean* orrialde batean sartzen da; agertzen duen gaia ere, legea, aproposa. Baina, legea ez zigor-kodeko edo konstituzioko horietakoa, baizik eta beste zentzu batean: gizaki edo jendarteak patuaren aurrean pentsatzen dugun muga, ezintasun edo misterioaren zentzuan; Legea letra larritz, gai oso garrantzitsua, gizakia gizaki denetik datorren gaia, kulturaren eta testuinguruaren araberakoa, baina guztietan beti lehen mailan egon dena... “Zer egiten du gu bizitzan bai kolektiboki eta bai norbanakoari dagokionez ere? Zer bete behar duzu? Ze baldintzatan bizi? Ze muga ezin hautsi?” e.a. Eta Kafkak hori irudi batekin adierazten du testu horretan... Jaio gara bizitzara emanak erabat, muga batzuekin topo egitera ailegatzen gara, horiek ulertzera edo ezagutzera, agian kolpe batez modu

traumatiko batean: “ezin duzu hori egin”; “ezin duzu hemendik pasa”, zentzu askotan. Kezka, ezinegona eragiten duen testua da, kafkiarra! Baina oso gardena: “zer gertatzen da?!” Nire ustez haritzat jotkatzen du; irekita gelditzen da, noski! Xehetasun bat: batetik, Laboaren alderdi nolabait gogorrena erabili dugu, zailena edo tratamendu errazik ez daukana; bestetik, kantu oso eza-gun bat ere, “Haika mutil!”. Horren hiru bertsio erabili ditugu emankizunean. Kontrapuntua egiten du, adieraziz bezala: gai guzti hauek guregan daude, aurrez aurre dauzkagu, baina badago “Haika mutil!”: bizitzan segi aurrera! *Lekeitioak*-eko “Baga Biga Higa”, “Itsasoa eta lehorra” txalaparta-ekin, “Haika mutil!” eta “Gernika” erabiltzen ditugu; testua hori guztia harilkatzeko, eta modu dramatikoan grabatutako irudiak... Orduan, Itxaro Bordari eskatu genion ahotsa jar diezaien, oso gogoko dudalako duen ahots-erregistroa; oso barnean gelditzen da, biribildu egiten du Laboaren musikak eta Manuelaren dantzak adierazten dutena. Artelan batek beti, gure asmoa ere hori da, gaiak azaleratu behar ditu, baina, baita ere ateak eskaini: irekia izan behar du, norbanakoa gera dadin ematen dion oihartzun horrekin. Ez da erantzun bila abiatu dugun proposamen bat, baizik eta galderak azaleratzeko gaitasuna izan behar du, erasana sortzeko... Testua ere hori da: irudi batzuk, galderak... Nolabait musika, musika dantzarekin, dantza testuarekin; elementu indartzaileak dira batzuk bestee-kiko. Lortzen dena: oso artefaktu indartsua bukaeran! ○

Zuzenekoa eta bideoa

—**Agian, zuzeneko emanaldian zelanbait galdu egiten da Lemoizko zentralaren “sarkofago erraldoiak” eskaintzen duen antzezleku edo iruditegia ezta?**

—Beno... Kontua da biak elkartzen ditugula: zuzenekoa antolatua daukagu

bukaeran Lemoizekoa erakusteko, hau da, material filmiko hori, bideoa, prestatu dugu 30 minutuko emanaldi batekin; orduan filma proiektatzean giroa erabat prest dago horretarako, hori ikusteko... Azken batean, bata bestea-ekin indartzen ditugu, hala: zuzeneko-

ak badu bere indarra bere aldetik, eta gero Lemoizko paisaia horrek ere badu berea bestetik, baita tratamendu filmikoak berak ere. Azken alde horretatik, nahiko berritzailea da, ez da musikal bat, ez dauka ikuspuntu hori, ez dakit nola azaldu; ikusi behar duzue!



Arraza bat, herri asko

Kultur aniztasunera eta aberastasunera hurbildu gura gaituzte Asier Reinoren argazkiek: *“Ezagutu ditudan kulturak eta herriak dira bizitzak eman dizkidan oparirik onenetakoak, eta nire ustez planetaren aberastasunik handiena; horien atzean arraza bakarra dago: giza-arraza, etnia, kultura, kolore eta gizarte-maila desberdinetakoa, baina bakarra”*. Unesco Etxeak antolatu du erakusketa Algortako azokan, ekainaren 19ra arte ikus daiteke.

Argazkiak: **Asier Reino**





Ametsak egi bihurtuz > San Nikolas ikastolako lehen *andereñoak*

Ikastoletako lehen *andereñoen* ekarpena balioan jartzeko ikerlana argitaratu dute

Algortako San Nikolas ikastolako lehenengo *andereñoen* ekarpena jaso dute Aintzane Rincon Diezek eta Arantza Anzizar Periañezek liburu batean: **Ametsak egi bihurtuz. San Nikolaseko lehen *andereñoak* (1963-1969)**. Getxoko Berdintasun saileko beka lortu zuten ikerketa eta liburua egiteko.



Ikastolaren plaka

“Ikastolak *iaz 50 urte bete zituen ez eta oroimenerako parada emongo zuenez, ametsa egia bihurtzen lagundu zuten *andereño*-ei protagonismo berezia emon gura genien*”, azaldu dute Aintzane Rincon Diez historialariak eta Arantza Anzizar Periañez antropologoak. *“Erokeria diruditen gauzen alde borrokatzeko eredu dira *andereñoak*”*, izan ere, ikastolaren hasierako irakasleak emakumeak ziren.

1936ko altxamendu faxista baino

lehen hasi dute lana: orduko euskarazko irakaspenen eta ikastolen historiagaz hasi da liburua. Gitxi izan arren *“garrantzi adierazgarria”* eduki ei zuten. Getxon, ho-

rrelako esperientzia bi jazo ziren eta liburuan sartu dituzte, *“herriarrek jakin dezaten”* gerra aurretik ere herrian ikastolak

“Ikastolak aurrera egin zuen pertsona batzuek beldurrari aurre egin ziotelako”

bazeudela. Gerraoste *“latzaren”* ostean, barriz, 60ko hamarkadako euskal kulturaren berpizkundearen baitan sortu zen ikastolen mugimendua.

Ikerlariak diotenez, irakasleen bihotzetan bidaiatzea frankismo garaian bidaiatzea izan da: *“60ko hamarkada lasaia goa izan zela emoten badu ere, urte gogorrak izan ziren; ikastolak aurrera egin bazuen, ez zen izan frankismoarren ahuleziagatik edo errepresio ezagatik, baizik eta*



Ikerlariak, irakasleak eta Berdintasun zinegotzia liburuaren aurkezpenean

pertsona batzuek beldurrari aurre egin ziotelako euren ametsak egia bihurtzeko”.

Emakume iraultzaileak

Horrela, gurasoen ekarpena aitortu eta San Nikolaseko lehen irakasle horiena balioan ipini gura izan dute: euren esperientzia, pedagogia-barritasunak, bitartekoak,

e.a. Finean, ikastolaren egunerokoa eta hari buruz irakasleek egindako interpretazioa jaso dute, sentimendu hura berreskuratu asmoz: *“Frankismoa erabat gogorra izanagatik bihotzak konkistatuko zituen estatatu errepresiborik ez zegoen-eta; gerraostea gogorra izan arren jendearen bihotzetan bazirauten Euskal Herriak eta euskarak,*

baita emakumeen borroka ere”, dio Rinconek, eta *andereñoen* lanik gabe ez lego-keela ikastolarik.

Baina *andereño* haiek eredu dira, emakumeen ohiko bizimoduagaz apurtu zutelako *“emakume iraultzailearen irudia gorpuztuz”*. Agian *“ez zihoazen barrikadetan, baina beren lanagaz, egunero ezarritakoagaz apurtu zuten; eta hori ekarpen erraldoia da”*.

Anzizarren iritziz, urte zail haietan horrelakorik egin bazen, gaur egun ere gau-

“Emakumeentzat ezarritako ereduagaz apurtu zuten euren eguneroko lanagaz”

zak egin ditzakegu: *“Ez emon ziurtzat gaur daukaguna betidanik egon denik. Oso garrantzitsua da hori planteatzea, guztia desmuntatzen ari zaizkigu-eta: finko eta betiko dela uste badugu ere, seguruenek ez”*. Beraz, lanak ere gogoeta eragin gura du. Rinconek dioenez, *“iraganean norbaiti esan baliote ikastola bat sortuko zela, ero esango zigukeen”*. Hain zuzen, horregatik aldarrikatzen dute utopia: *“Posible da errealtateak aldatzea”*. ○

Itziar Aurtenetxea, Josune Elizondo eta Begoña Urrutia > lehen *andereñoak*

“Gurasoak oso garrantzitsuak izan ziren ikastolak sortzeko; eta, beno, guk ere zer edo zer egingo genuen”

—Zuek zelan bizi izan zenituzten hasierako urte haiek, zerk motibatzen zintuzten ikastolan parte hartzea?

—(J) Euskararenganako eta herriarenganako maitasunak. Eta hasierako urteak zelakoak izan ziren? Egia esan, alde batetik, gogorrak; ez geneukalako materialik eta beste gauza askorengatik: ez ginelako ofizialak, etxeetan emon behar genuelako klase, e.a. Baina, bestalde, urte haietako oroimen oso ona daukagu, izan ere,

umeenganako eta gurasoekiko hartu-eman oso-oso ona izan zen.

—(I) Hori egia da: gaur egun oraindino badaukat harremana guraso batzuek. Beste alde batetik, esatea hiru hilerik behin aldatu behar genuela etxek, susmori ez sortzeko; beldurra geneukan ikuskatzaileraren bat noiz etorriko. Bizpahiru urteren buruan, barriz, txalet batera joan ginen, eta han aulkiak eta arbelak geneuzkan. Garai oso desberdinak dira.

—Joan dira 50 urte eta izugarri hazi dira, bai San Nikolas, bai ikastolen mugimendua. Hasi zinetenean, pentsatzeko zen garapen hau?

—(I) Beno, ikusten zen ikastolak gero eta indar handiagoa zeukala: urte gitxian pila bat handitu zen ume kopurua. Pentsa, hasieran etxerik etxe joan behar zuten ea jendea animatzen zen umeak ikastolara eroaten. Baina gero matrikulak handitu ziren, gero eta gehiago, eta

sumatzen zen hau gertatuko zela; nik, behintzat, sentsazio hori daukat.

—Lana egiteko arrazoi bat izan da gitxi berba egin dela zuen ekarpenaz; gurasoen lana aipatzen da, baina ez zuena. Horrez gainera, gehientsuenak emakumeak zineten.

—(B) Orain ere irakasle gehienak emakumeak dira, baina orduan batez ere. Nire ustez, gurasoek indar handia egin zuten benetan. Bai eurek, bai guk, ikastolari zer edo zer eman genion. Baina gurasoak benetan ziren garrantzitsuak: zabalpen handia egin eta gauzak erraztu zizkiguten.

—(J) Gainera, apustu handia egin zuten; izan ere, eurek arriskatzeko zuten beren umeen etorkizuna, eta gure eskuetan ipini

zituzten; gurasoak oso garrantzitsuak izan ziren ikastolak sortzeko.

—Begoña, zuk San Nikolasen hasi eta bertan lan egin duzu erretiratu arte. Fisiologi asko aldatu da, eta filosofia aldetik? —(B) Beharbada, ikastola agian aitzindari izan zen. Gero ikastola gehiago zabaldu ziren herri guztietan. Hasieran, egia da umeak urteak egiten hasi ginela, baina gaur egun mundu guztiak egiten ditu. Bestalde, materialei eta testu-liburuei dagokienez, hasieran ez geneukan ezer. Apurka-apurka, barriz, materiala sortzen eta garatzen joan zen, hobetu zen, eta gauzak normalizatzen joan ziren; horrela ezin jarrai zitekeen-eta. Esan behar dut San Nikolas berezia izan dela danontzat.

—(I) Egia da, bai. Ez dakit ausartak ginen edo nahikoa zorakeria egiten genuen urteerakaz: ume pila bat hartu eta egunpasa joaten ginen Azkorriara, Ereagara, e.a. Gaur egun, barriz, askoz kontrolatuago dago alderdi hori eta ume kopuru jakin bakoitzeko irakasle bik joan behar dute.

—Aintzane Rincon eta Arantza Anzizarren ikerketaren protagonistak zarete, zuotako sei *andereño* elkarrizketatu dituzte. Pozik zaudete emaitzagaz?

—(J) Guztiz pozik gaude danak, neroni irrikan nago liburua ikusteko eta irakurtzeko. Zentzu horretan, eskerrak emon behar dizkiegu biei gai hau jorratzen animatu direlako beka honegaz. ○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA


Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Biltzarra Donostian

Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi ikastaroa uztailaren 2tik 4ra



Helena Taberna da hizlarietako bat. Berbaldi-mahainguruak Miramar Jauregian egingo dira

Euskadiko Filmategiak eta EHUK Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi izenburudun biltzarra antolatu dute. Berori EHUKo XXXIII. Uda Ikastaroak barruan eskainiko duten ikastaroa ere bada, Donostiako Miramar Jauregian egingo dena uztailaren 2, 3 eta 4an.

Antolatzaileek azaldu dutenez, ekimenaren helburua hurrengo da: *“Euskal zinemagileen hiru belaunaldi, gutxienez, ari dira lanean gaur egun. Badirudi une egokia dela haiekin beren ibilbideaz hausnartzeko, era generikoago eta esparru akademiko batean, euskal zinemaz hausnartzeko hainbat ikuspuntutatik: historia, izaera, industria, nortasun nazionala, euskara, generoa, azken urteetako Kimuak programaren garrantzia, abangoardiak eta abar. Beraz, euskal zinemari buruzko ikerketen inguruko egoera multidisziplinaria azalduko duen kongresua izango da, haren sorreratik gaur egunera arte, eta bere protagonistetako batzuekin”*. Iragarri dutenez, bost mahainguru prestatu di-

tuzte: *“eta hamabost hitzaldi inguru izango dira”*; parte hartuko dute, besteak beste: Koldo Almandoz, Asier Altuna, Borja Cobeaga, Montxo Armendariz, Juanma Bajo Ulloa, Helena Taberna, Victor Erice, Julio Medem, Imanol Uribe, Jose Mari Goenaga, Pablo Malo, Enrique Urbizu e.a. Hitzaldiak egitarauak

«Bost mahainguru eta hamabost berbaldi inguru iragarri dituzte hiru egunetarako»

adierazitako hizkuntzan izango dira: euskaraz direnentzat gaztelaniazko itzulpen-zerbitzua egongo bada ere, alderantzizko kasurako ez dute ezer zehaztu.

Ikastaroak 92 euro balio ditu, eta Filmategiko webgunearen bidez eginez gero %50eko beherapena; izena emon behar da. o

Info+: www.filmotecavasca.com/eu/udaikastaroak@ehu.es
943 468 484 / 943 219 511

Azkena Rock Gasteizen

Jaialdia **hilaren 20an eta 21ean** izango da, bezperarako ere emanaldiak iragarri dituzte



Scorpions eta Blondie dira kartelburu

Aurten ere jaialdiaren bezperan, hilak 19, eta elkarlanari esker, debaldeko kontzertuak ere eskainiko ditu Azkena Rockek; hurrengo taldeek joko dute: lehenengo, Ama Zuriaren plazan, Disaster People (16:30), The Highlights eta Los Zigarros; ostean, Hor Dago! tabernan, Killing Valerie23 (20:00), Smoke Deluxe eta Small Jackets.

Hurrengo egunean abiatuko da Azkena Rock jaialdiaren XIII. ekitaldia Mendizabalán. Hala, lehenengo egunean (hilak 20) zuzenekoa eskainiko duten taldeak, besteak beste, hauek dira: Scorpions, The Stran-

glers, Seasick Steve, Unida, Marah, Turbo-wolf, Hudson Taylor, Monster Truck, Bombus eta 13 Left To Die; eta bigarren egunekoak (hilak 21) hauek: Blondie, Violent Femmes, Wolfmother, Joe Bonamassa, The Strypes, Deap Vally, Kadavar, The Temperance Movement, Royal Thunder eta Niña Coyote-Chico Tornado.

Sarrerei dagokienez, egun bietarako txartelak 69€ (gehi 5€ banaketa-gastuak) balio du, eta egun bakar baterakoak 49€ (gehi banaketa-gastuak); ARF Passportdu-nek 5€-ko beherapena dute. o

Info+: www.azkenarockfestival.com

diskoak

Orbainak
Beñat Igerabide
Elkar



Beñat Igerabide kantari eta musikariaren bakarkako estreinako lana da hauxe. Hiru urte baino gehiago eskaini dizkio lana osatzen duten 11 kantak sortzeari. Pop-rock doinuak nabarmentzen dira Igerabideren proposamenan, eta grabatze-lanetan zein zuzenekoetan lagun ditu Gus Gonzalez (bateria), Maria Soriasu (baxua) eta Gorka Urra (gitarra).

Agur
Barricada
Warner Music



Drogasek taldea utzi ostean, Flechas cardinales lana plazaratu zuten; orain, agur esateko ordua heldu dela erabaki eta 31 urteko ibilaldiaren isla diren CD bi eta DVDa kaleratu dute. Iragan azaroaren 23an Anaitasunan (Iruñea) eskainitako agurreko kontzertua zuzenean jasotzen duen lan mardula da: 35 kanta, 150 minutuko irudi-eskaintza...

Tenpora
Tenpora
Autoekolizpena



Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxua), Juantxo Zeberio (teklatuak), Elene Arandiak (ahotsa) eta Beñat Barandiaranek (gitarra elektrikoak) osatzen duen taldeak izen bereko estreinako diskoa aurkeztu du. Karlos Linazasoro eta Harkaitz Canoren hitzak rock, jazz, pop, folk eta indie doinuak dituzten 6 kantuk osatzen dute lana.

jaialdia >

fanfarreak Zornotzan

Hilaren 20, 21 eta 22an Amorebieta-Etxanoko kale-musikarien nazioarteko lehiaketan onenak izan diren taldeakaz gozatzeko aukera egongo da. Izan ere, fanfarreen, banden eta kaleko musikaren Zornotzako Haizetara jaialdiak IX. ekitaldia beteko du orduan. Amorebieta-Etxanoko Udalaren kultura alorreko Ametx erakunde autonomoak antolatzen duen kaleko musika-taldeen nazioarteko lehiaketara aurkeztu diren taldeetatik aurtengo ekitaldian kaleak girotuko dituztenak izango dira ondorengo hauek: Ottoni Animati (Italia), Perhaps Contraption (Erresuma Batua), Fanfara Transilvania (Errumania), Mastretta (Espainia), Krakow Street Band (Polonia), Imperial Kikiristan (Frantzia), Bizu Coolective (Portugal), Archimossi (Italia) eta Tokyo Brass Style (Japonia).

Info+: www.haizetara.com

sarean >

euskal maketak

Argiako kazetari Gorka Bereziartua Mitxelenaren Boligrafo Gorria blogean irakurri genuen, Interneteko YouTube bideo-gunean Euskal Maketak deritzon kanala badela; eta gaia interesgarri dakizuekelakoan hona: “1980-90eko hamarkadako maketa pila bat sarera igotzeko lana” hartu du zale batek, dioenez “gaztea zeneko musikak ahaztu ez daitezen sortu du”. Bereziartuak azaldu legez, txio baten bidez izan du ekimenaren barri, eta *“Amodio Jaunak dio berak kanala Inaxio Esnaolari esker ezagutu duela eta horrek dio Gotzon Sanchez bizkaitarra dagoela egitasmoaren atzean”*.

Info+: youtube-ko kanala Euskal maketak

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkeztzen baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Idazle Eskolako ikastaroa

Bergarako Idazle Eskolak eskaintzen duen **graduondokoan** izen-emotea **zabalik**

Daborduko datorren ikasturterako izena emon daiteke Bergarako Idazle Eskolako graduondokoan. 11. ekitaldia edo ikasturtea abiatuko du Idazle Eskolak datorren urrian, *“edozein lanetan euskaraz idazteko gaitasuna bermatzea helburu”*. Interneteko gunean argi azaltzen dutenez, gaur egun *“Idazle Eskolak, beraz, bi idazketa mota lantzen ditu: idazketa literarioa eta idazketa profesionala -lan-arloko zein ikasketa-arloko idazketa, alegia”*.

Bertan izena emon gura dutenek *“lizentziatuak edo diplomatuak beharko dute. Hala ere, bere lan-baldintzak medio idazketa lanean aritu denik ere onartu ahal izango da: idazteko eta irakurtzeko zaletasuna dakarrena; hizkuntza-gaitasun handikoa; euskaraz beste edozein arlotan*

«300 orduko iraupena du, eta ikasturte bitan egiteko banatuta dago»

ondo moldatzen dena; bere ikasketa profesionalak euskaraz egin ez dituenak, edo egin baditu ere, bete behar duen lanerako behar adinako prestakutzarik ez duena; norbere testuak zuzentzen ikasi eta beste batzuei idazten irakasteko gogoia izan dezakeena; edo euskal irakurlearen profila hobeto eza-gutu nahi duena”. Ikastaroak 300 orduko



Interneteko gunean dago informazio guztia

iraupena du eta bi ikasturtetan banatuta dago; modu presentzialean zapatuetan (urri amaieratik maiatz amaierara arte) Bergarako UNEDeko ikastetxe elkartura bertaratuz egin daiteke edo modu erdi-presentzialean (urtean bost saiotara joan eta hiru tutoretzatara agertuz).

Moduluka banatuta dago programa, modulu bakoitzaren prezioa eta beste Idazle Eskolako sareko gunean zehaztuta dago. Amaitzeko, aipatu graduondoko titulua jasotzeko lizentziatura edo diplomatura behar dela eta Hezkuntza Sailak homologatutako graduondo maila duela. o

Info+: ieskola.asmoz.org / **943 769 033**

liburuak



Piztutako etxea
Felipe Juaristi
Erein

Bere lanik “sakonena” dela dio Juaristik (Azkoitia, 1957). 70 orri inguruan bildu ditu 20 poema; saikera idatzit gura zuen, ostera poesia izan da garaile, halere: “gogoeta egiten dut, esperantzaz, izuaz, desiraz, maitasunaz eta pasioaz... Abiapuntua da bizitzak bere arauak dauzkala...”



Gerra txikia
Lander Garro
Susa

Oreretako idazlearen bigarren nobela da: aita errefuxiatua duen Xabi Ugarte du protagonista. Familiagaz Hendaia-ra bizitzera doa, GAL garaia da. Haur xalotasunak munduari begiratzeko aldarte berezia ematen dio; abenturek batetik, garai krudelen oroitza-penek bestetik bat eginez...

[kirola]

Kirol anitzeko asteburua

Ekainaren 14an eta 15ean triatloi herrikoia eta Kosta Traila egongo dira **eskualdean**



Hilaren 14an Txorimalo gaztetxeako triatloia; hilaren 15ean Kosta Trail (aurreko ekitaldiko argazkia)

Uda heldu baino lehen kirolaz gozatzeko aukera parebakoa izango da Uribe Kostan. Ekainaren 14an, zapatuan, Txorimalo gaztetxeak lagunarteko triatloi *“oso herrikoia”* egingo du bigarren urtez. Bestalde, hurrengo egunean, ekainak 15, urtero jotkatzen den eta parte hartzaile ugari dituen Kosta Trail kirol-probak izango dira.

Lagunarteko triatloian, kirolariak hiru modalitatetan jardun beharko dira: igerian (250 metro), txirrindulan (11,5 kilometro) eta korrikan (3 kilometro). Hitzordua arrastiko 17:00etan jarri dute, Ereagan, La Ola jatetxearen parean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, *“antolakuntza baliabideak direla-eta”*, aurten 60 kirolaritan finkatu behar izan dute proban parte hartzeko muga. Horregaz batera, gaztetxeako neska-mutilek laguntza eskatu dute dena ondo antolatu ahal izateko, jende asko behar baitute ibilbidea ondo kontrolatu eta arazo edo istripuak ekiditeko.

Forum Sportek antolatzen duen proba hurrengo egunean izango da, ekainak 15,

eta horretan parte hartzeko online izen-ematea apirilaren 1ean zabaldu zuten. Guztira hiru proba antolatu dituzte: 30 kilometroko lasterketa, martxa familiarra (11 kilometro) eta mendi-martxa (20 kilometro). Lehenengo proba 450 kirolarientzat mugatuta egongo da, eta maiatzaren 20a

«Kosta Traileko ibilbideak zirkularrak izango dira aurten»

izan zen horretan parte hartzeko izen-emateko azken eguna. Hala ere, beste bietarako izen-emate epea ekainaren 13an amaituko da, bost euroren truke. Ibilbidea aldatu egin dute aurtengo ediziorako, zirkularra bihurtuz; eta irteera zein helmuga Sopelako udaletxe aurrean egongo dira. 30 kilometroko lasterketa hasteko hitzordua goizeko 09:00etan jarri dute, mendi-martxarena 09:15ean, eta martxa familiarra, berriz, 09:30ean. o

Info+: www.txorimalogaztetxea.blogspot.com
www.kostatrail.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA



Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Gauargiak. Ilustrazioa: Daniel Castello

Gauargien olerkiak

Azkenean atzera bueltatzen zara
–Non demontre zegoen bidea?–
galdetzen diozu zure buruari.

Baina badakizu erantzuna:
galduta zbiltza.

Burua makurtzen duzu,
esku artean ezkutatzeko.

Minutuak igaro ostean
gero eta zailago ikusten duzu irtenbidea.

Ustekabean argitxo bat agertzen da
zuhaitz baten adarraren puntan.
Argiduna da, dudarik gabe.

Hurbiltzen zarenean desagertzen da,
baina segundo batzuk beranduago
berriro agertzen da, urrunago.

Harantz zoaz, behin, birritan, hirutan...

Eta konturatu baino lehen
herriko argiak ikusten dituzu.


Koldo Iturbe > euskara eta kultura-zinegotzia

“Euskaigintzarekin elkarlanean aritu izanak indartu du euskara Getxon”

Koldo Iturbe Mendilibar (1968) hamar urte baino gehiago daroatza Getxoko zinegotzi lanetan, Kultura, Euskara eta Gazteria arloak zuzentzen, hain zuzen ere. Getxoko euskaigintzaz eta herrigintzaz harro dago Iturbe. Izan ere, bere ustetan, horien arteko elkarlanari esker udalerrian euskara indartzea lortu da.

—Zeintzu dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Getxon?
—Garrantzi berezia hartzen dute: batetik, euskarara inoiz hurbildu ez diren helduen munduan elebitasun pasiboa areagotzeak; bestetik, euskara eta gure kultura etorki-nengana hurbiltzeak, gure kultura eta etorkinen kulturen arteko hurbilketa bultzatuz. Euskararen erabilera euskaldun guztiontzako erronka nagusia da, bereziki gazteentzat. Euskararen erabilera erakargarri egin behar da. Hala, hizkuntza eroso eta erraz hitz egin; eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen eta hedabideen bitartez, besteak beste.

—Hori lortzeko egitasmorik baduzue?
—EAJk sostengatzen duen Getxoko gobernu-taldeak euskarari dagokion hirugarren plan estrategikoa onartu zuen iaz, partaidetza sustatuz eta 18 bilera antolatuz. Horiatar 400 pertsona baino gehiago hurbildu ziren, eta guztira 242 ekarpen egin zituzten. ESEP 2013an onartu genuen, Euskara Planak zehaztu eta biltzen dituen ekintzak esparruka daude antolatuta: familia-transmisioa (Sendi; Emaiozu euskara); irakaskuntza (Ikasgehi bilgunea); euskalduntze-alfabetatzea (Egizu, euskara ikasteko bekak eta euskaltegiekin elkarla-



Koldo Iturbe Mendilibar, Getxoko zinegotzia

na); eta kulturartekotasuna sustatzeko udaleko immigrazio arloarekin elkarlana. —Eta erabilerari dagokionez, baduzue ekimenik edo proiekturik martxan?
—Administrazioan, lan munduan, aisialdi eremuan, kulturgintzan eta kirolean euskara sustatzeko hainbat programa jarri

“Euskararen erabilera euskaldun guztiontzako erronka nagusia da, bereziki gazteentzat”

ditugu martxan. Bestalde, ezin aipatu barik utzi, euskarak Getxon daukan indarra ez dagokiola bakarrik euskararen aldeko udal politikari. Euskaigintzarekin egindako elkarlanak erraztu du bide hori, non herritarrek ere, beraien militantziarekin lagundu duten. Ez dut ahaztu nahi udal administrazioetik euskara atalak egiten duen lana, bihotzez egindakoa eta herriaren zerbitzura zuzenean bideratuta dagoena. Eskerrik asko guztioi! o

Getxo

Biztanle kopurua
EUSTATEk bi urtetik gorako biztanleak hartzen ditu, beraz: 2006an 79.330 biztanle 2011n 77.987 biztanle.

Euskadunak
23.006 euskaldun, %29 (2006) 21.640 euskaldun, %27,7 (2011)

la-euskaldunak
21.756 ia-euskaldun %27 (2006) 24.790 ia-euskaldun %31,7 (2011)

Erabilera datuak Datu fidagarrienak kale-erabilerari dagozkionak dira: %2,8 (1994), %4,8 (2001) eta %9,2 (2010)

Harremanetarako:
944 660 010/011
euskara@getxo.net

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitezten.

Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

C/Iturgibai, 13
48620 Plentzia
Telf.: 94.677.31.28
www.cafebarzuazua.com

Café-Bar
Zua
Plentzia

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

berezi
Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa/Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BODEGUILLA
BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

fugu
sushi take away & delivery

Bar batean eginda japoniar era tradizionalan
www.fugulasarenas.com
Evaristo Churrua Kalea 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

LA LURRI
GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

KAI EDER
JATETXEA
Menu ederra itsasoari begira
Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Oilasko hanburgesa

Handienen zaporea formatu txikian



Pintxoz beteriko barra izaten dute egunero Zua Zua tabernan

Japoniako zapore exotikoak alde batera utzi eta gurea bueltatuko gara barriro ere. Udagaz batera eguraldi ona ate-joka dugula, Plentziako portura hurbildu eta Zua Zua tabernara sartu gara oraingoan. Bertoko terraza handiaz batera, pintxoz beteriko barra aurki daiteke heldu bezain pronto. Hala, aniztasun horretatik bakarra aukeratzea zaila izan den arren, oilasko mini-hanburgesa aukeratu dugu haren errezetaren nondik norakoak zeintzuk diren zehazteko.

Mokadu gozo hau prestatzeko, lehenik eta behin oilaskoaren ohea izango den aza-entsalada prestatuko dugu. Horretarako, aza ondo txikitu eta etxean eginiko mostaza saltsagaz ondo nahasiko dugu. Entsalada prest dugula, oilasko

papar zatia hartu eta plantxan erreko dugu. Horregaz batera, hirugihar zati bat ere prestatuko dugu. Behin haragia egin da, hanburgesarako ogi txiki bat hartu, erdibitu eta pintxoa muntatzeari ekin beharko diogu. Beheko partean entsalada jarriko dugu, eta horren gainean oilasko paparra. Garrantzitsua da haragia egin barri egotea, haren gainean jarri behar den cheddar gazta ondo urtu dadin. Ondoren, hirugiharra gaztaren gainean jarri eta ogiaren tapa jarriko dugu. Azkenik, hanburgesa txiki baina gozo hau zutunik mantentzeko, zotz luze bat hartu eta erdian sartuko dugu. o

Osagaiak: oilasko-paparra, cheddar-gazta, hirugiharra, hanburgesarako ogia, aza eta etxean egindako mostaza saltsa

uk **zure**
publizitatea
hemen !
94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Croissanterie
Brioche

MONTE JAIA 1
48991 Getxo (Bizkaia)
croissanterie-getxo.blogspot.com

94 460 86 48

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Kopiak
SALGAI

UK aldizkariaren bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Buru-belarri zabilteza ikasi eta ikasi,
egun osoa emoten duzu
liburutegian. Aurpegia zurbil
daukazu eta argaldu egin zara: atera
arnasa hartzera, faborez!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Lagun batez kristoren haserrea
hartuko duzu, baina lagunari bost
axola! Horrek minduko zaitu eta
pikutara bidaliko duzu. Ondo da,
lagunak barra-barra dauzkazu-eta.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Txakur txiki bat topatuko duzu
etxeko atean, negarrez. Hunkitu eta
etxera sartuko duzu, baina gurasoek
errieta egingo dizute. Nori eroango
diozu orain txakur gaixoa?

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Kalean zoaz burua ametsetan galduta
eta, bat-batean, irrist egingo duzu.
Zer zapaldu duzu, platano-azala? Ez
bada! Kaka itzela! Zorte handia
izango duzu, zorionak!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
A zer parranda aste akabuko! Ederto
ibili zinen lagun barriak egiten.
Arazoa biharamunekoa, astelehena
galanta, ezta? Hurrengorako tentuz
ibili eta neurrian edan.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Auzokideari lorak eta landarak
lapurtzen dizkiozu beti. Uste duzu ez
dela ohartzen, nagusia delako. Bai zera!
Ibili adi, lore artean erleak edo inurriak
ipiniko dizkizu agian.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Sasoiko lehen piperrak jasoko dituzu
laster eta primerakoak izango dira, zein
gozoak! Ez esan inori, bakan batzuk
emoteko eskatu eta bat bera barik
urtziko zaituzte bestela.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Auzoko San Juan surik handiena nork
egingo, egur mordoak bildu duzu.
Ondo gorde beharko duzu egun
horretara arte, auzokideek lapurtzerik
gura ez baduzu. Zorte on!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Gurasoei oparia egiteko dirurik ez eta
pentsatu duzu pastela egitea, baina
sekula ez duzu horrelakorik egin. Saiatu
bizkotxoagaz eta sartu egizkiozu sagar
zatiak, ikusiko zein gozo dagoen!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Ezkontza batera gonbidatu zaituzte
lehenengoz eta pozarren zaude. Jantzi
eta zapata barriak erosi dituzu, ilea
moztu duzu, oparia egin diezu... Zenbat
paga beharko duzu dana ordaintzeko?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Urteko lehen bainua hartu duzu
itsasoan, a zer gozamen... eta freskura!
Ura hotz dago oraindino, baina esaten
dute oso ona dela azalerako, zimurrik ez
ateratzeko. Horren beldur zara ala?

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Uda badatorrela eta merienda antolatu
duzu etxeko lorategian. Lagun mordoak
hurbilduko da eta kristoren jaia izango
da, musika eta dana. Pena udaltzainek
giro ona zapuztuko dutena!

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK
zure etxean, hamabostero.
Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Nabarmendutako guneetako ariketak bideratuz, egoki bete itzazu lauki guztiak, jakinda lerro eta zutabe bakoitzean 1 eta 6 bitarteko zenbakiak ageri direla eta ez dela zenbakirik errepikatzen.

Adib.: bi laukiko gune batean ariketa “7+” bada, honako hauek izango dira laukiak: 1+6, 3+4 edo 2+5 (ordena ez da kontuan hartzen).

2/		12 *	
3 -	5 +		2/
	9 +	3	
		3 -	

6 +			1 -
3 -		24 *	
4 +			2/
	2/		

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Non atera zuten erdiko argazki zaharra?

- Gorliz
- Sopela
- Plentzia

SARIA

La Gusana liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta

Tf. 94 491 14 12

lagusana

> Aurrekoaren erantzuna: Baltza
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***
*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Zaindu

Osteopatia-Fisioterapia

Doctor Landa 4, SOPELA.

Tel: 94 602 67 79

zaindu

Esku Terapia Zentroa

Osteopatia Fisioterapia

> Aurrekoaren erantzuna: Elias Amezaga saria
> Irabazlea: **Begoña Etxebarria***
*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



KARLA LLANOSEK UTZITAKO ARGAZKIA

Memorias de Getxo bloga

ROMOKO FUTBOL TXAPELKETA, 1955

Fernanen zelaian hartu zuten irudi hau, 1955ean, auzoko futbol-txapelketa batean: irabazleen argazkia da. Romotarrek ohitura zeukaten lagun artean elkartzeko eta futbolean jokatzeko. Fernanen zelaia Los Puentes kalearen eta Gobelako kiroldegia artean zegoen (Kresaltxu kaletik sartzen zen). Garai batean, zelaia Federico Goyoagarena izan zen, eta hark zaldiak zeuzkan ibai ondoan, korta batean, Itzubaltzeta gaztetxearen eraikina dagoen lekuan; eta zelaia ateratzen zituen: batzuetan polo-txapelketak antolatzen zituen. Garai hori igarota, romotarrak futbolerako erabiltzen hasi ziren zelaia: 60ko urteetan zortzi talde ere izan ziren, kaleen arabera antolatuta; auzoko gazte gehienek jokatu zuten taldeotan. Apurka-apurka zaletasuna hazi eta Udabarriko Txapelketak egiten hasi ziren: 30 taldetik gora elkartu zituzten, auzokoak eta ingurukoak. o

Zutunik: Fernan, Velasco, Perez, Marquez, Txinda, Gatón, Otxontesana, ?, Garay, ?.
Makurtuta: Amo, Vicandi, Mirandona, Carbon, Barredo, Kokola eta Lopez.

XABI ARAKAMA > trikitilaria

“Ondo sentituz gero, denak dira leku onak kontzertuetarako”

Testua: Iker Rincon Argazkia: Xabi Arakama



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Maniatiko hutsa.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?
Aitonak baserrian madalenak ematen zizkidanekoa. Normalean beti oso gustura jaten nituen, baina egun batean ez nuen goserik eta katuari eman nion ezkutuan... 3 edo 4 urte izango nituen... Aitona konturatu egin zen, eta errieta egin zidan!

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?
Oker, nere txakurra. Egun guztia ihes eginda ibiliko litzateke eta hura aurkitu nahian ez nintzateke aspertuko.

Zein da zure ametsetako bat?
Euskal Herriak independentzia lortzea denbora luze baino lehen, eta hori gertatzen den egunean bizirik egotea, gozatu ahal izateko.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Aizkorriko magalean dagoen Beunde izeneko leku zoragarria. Txikitan gurasoekin beti han egoten ginelako.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?
Facebook-etik idatzi zidan neska ero bati jokoa jarraitzea. Orain berarekin ezkondata nago eta aitatxo izatekotan hemendik aste betera... Erokeria goxoa!

Non gura zenuke kontzertu bat emon? Zergatik?
Amestu nezakeen leku gehienetan jo dut dagoeneko, baina Hego Amerikako Vive Latino jaialdi erraldoian joko nuke gustura.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?
Asko! Baina bat beti izango dut gogoan. Ekuadorren jo genueneko, Quitofest jaialdian. Hiria 3.000 metroko altueran dago eta hori dela-eta, kontzertua bukatu orduko, eszenatokitik jaisteko ranparen bukaeran oxigeno botilak zeuden badaezpada...

LABURREAN—Ibilbide luzea egin du Xabi Arakama trikitilariak (Zegama, 1973). Izan ere, munduko agertoki askotan astindu du trikitia. Obrint Pas taldeagaz alde batetik bestera ibili ostean, taldeak geldialdi mugagabea egiteko erabakia hartu du. Hala, geldirik egon ezinik, zegamarrak talde barria sortu du: Xaiko. *Therapy* izeneko diskoa kaleratu dute, eta punk, ska eta trikitixa doinuakaz batera, jaigiorako musika ezinhobea sortu dute. Seguruenera hemendik aurrera udako jaietako oholtza askotan ikusteko aukera izango dugu.

Iraide, neska gaztea, lan egiteko gogotsu eta prest!

Iker, gasolindegian, asteburuetan, lan egiteko pertsona baten bila



Jendea
behar dut
IRAGARKIA IPINI



Lana
behar dut
IRAGARKIA IPINI

Beharsarearen bitartez, Iker Goñik Iraide Herrera langile euskalduna kontratatu berri du Getxoko gasolindegi batean lan egiteko.

beharsarea.net

Beharsarea Getxon euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko tresna sinple eta eraginkorra da. Beharraren adiera biak uztartzen ditu: lana eta alor horretako premiak uztartzeko gunea da Beharsarea.

egizu!

www.beharsarea.net/Getxo



EUSKARA BIZI



Getxo

Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta,
ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan.
ArgiHizkiak testu laburren euskarazko
literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbak "argiarekin
marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura.
Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien
hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

Azken egunak! Ekainaren 22ra arte

Argazkietan oinarritutako

TESTU LABURREN III. LEHIAKETA



ARGIHIZKIAK
www.argihizkiak.com

LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:
argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

Labur-laburra: 160 karaktere gehienez.

Laburra: 100 hitz gehienez

ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.argihizkiak.com

info+: argi.hizkiak@gmail.com

t: 619 935 541



Epea zabalik
ekainaren 22ra arte



aitxu!
sopiai euskeraz biz!

